



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko maiatzaren 9a

66. ZK.

### A U R K I B I D E A

F SAILA:

**Galderak:**

- 11-24/PES-00053. Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzan Psikologia ezartzeari eta kontratazio-zerrendei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-24/PES-00054. Galdera, Ecofert Sansoain enpresan Zubietako ingurumen-gunetik iritsitako lixibiatuak eta/edo lohiak Iruñerriko Mankomunitatetik iritsitako hondakin organikoekin kutsatu ote diren jakitekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-24/PES-00055. Galdera, Ecofert Sansoain enpresan Gipuzkoatik iritsiak ez diren lixibiatuak eta/edo lohiak Iruñerriko Mankomunitatetik iritsitako hondakin organikoekin kutsatu ote diren jakitekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-24/PES-00056. Galdera, Nafarroako Inbertsio Institutuko Inbertsio Batzordearen aktak argitaratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-24/PES-00057. Galdera, hezkuntza itunduko sindikatuetik eta patronalarekiko lan-mahai bat sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-24/PES-00058. Galdera, hezkuntza itunduan irakasleak ordeztzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-24/PES-00059. Galdera, hezkuntza itunduko irakasle ez diren langileen ordainketa eskuordetuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-24/PES-00060. Galdera, Gipuzkoako ingurumen-gunea-1 fasetik Ecofert Sansoain SL enpresak Artaxoan dituen instalazioetara hondakinak eramateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-24/PES-00061. Galdera, familientzako elkarguneei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-24/PES-00062. Galdera, Lodosatik gertuko herrietatik DBHko ikasketak euskaraz egiteko garraioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-24/PES-00063. Galdera, “Nafarroako Inbertsio Institutua, SL” sozietate publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-24/PES-00064. Galdera, 2023an zehar lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea gauzatzeko espedientei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

- 11-24/PES-00065. Galdera, Ecofert eta Lacoya enpresen Artaxoako plantetako hondakinen analisiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-24/PES-00067. Galdera, lixibiatuen lekualdaketaren kudeaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-24/PES-00068. Galdera, Justizia Jauregiko seigarren solairuan sinbologia frankista egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-24/PES-00069. Galdera, Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazioaren instalazio berriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-24/PES-00070. Galdera, merkatu-erreserbaren eta erreserbatutako kontratuaren betetze-maila dela-eta jasotako datuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 11-24/PES-00071. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko obren aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten enpresen kontabilitate-betebeharrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- 11-24/PES-00072. Galdera, Nafarroako Aratxea Adierazpen Geografiko Babestuko behi-haragia sustatze aldera abiarazitako kanpainari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 11-24/PES-00073. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren organigraman Zainketen Zuzendaritza sartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- 11-24/PES-00074. Galdera, Euskarabidean euskara ikasteko baimenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 15/24 Ebazpena, apirilaren 25ekoa, Nafarroako Arartekoak emana, urtebeteko prestakuntza-beka baten deialdirako oinarriak onesten dituen, euskararen ezagutzaren baldintzarekin, Zuzenbideko gradua dutenentzat, Nafarroako Arartekoan aritzeko (34. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-24/PES-00053. Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzan Psikologia ezartzeari eta kontratazio-zerrendei buruzkoa****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak Oinarrizko Osasun Laguntzan Psikologia ezartzeari eta kontratazio-zerrendei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Domingo González Martínez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Oinarrizko Osasun Laguntzako psikologoei buruz (11-24/PES-00053). Hona galdera eta Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

“Kontuan hartuta ez dagoela Osasunbidea-NOZen zerrenda propiorik, zer kontratazio-zerrenda erabiltzen ari dira profesional horiek kontratatzeke? Noiz egin behar dira zerrenda horiek? Zer betekizun akademiko izanen dituzte? Oraindik ere Osasunbidea-NOZen Oinarrizko Osasun Laguntzan Psikologiarako berariazko zerrendarik ez dagoenez, bitartean zer alternatiba erabiltzen ari dira?”

“Zer arazo sortu dira laguntzaren arloan eta lanekoan Psikologia klinikoko eta/edo Psikologia Sanitario Orokorreko profesionalak kontratatzearen ondorioz? Zer irtenbide ezarri dira horiek ekiditeko edo konpontzeko?”

Hasiera batean postuak psikologo klinikoen zerrendan eskaini ziren. Zerrenda hori agortzen zenez, psikologo orokor sanitarioen zerrenda baterako deialdia egin zen, Funtzio Publikoko LEP bidez. Hortik hartutako kontratazioak egin ziren

Nafarroako eremuan helduen psikologia osoari estaldura eman arte. Haur eta gazteen hiru psikologo kontratatzea falta zen, eta funtzio publikoko zerrendan inork erantzunik eman ez zuenez, O-NOZek berak zerrenda propioa sortu zuen. Psikologo klinikoen elkarrekin zerrenda hori errekurritu du estatuko legediaren babesean. Errekursoaren ostean zerrenda baliogabetu egin da.

Horren ondoren zenbait bilera egin ziren Osasun Mentaletik aukerak aztertu eta baztertzeko. Errekursoaren ebazpenaren zain gaude. Alternatiba gisa Funtzio Publikoan dauden psikologoaren zerrenda erabiltzeko bideragarritasuna aztertzen ari da.

“Oinarrizko Osasun Laguntzako Psikologiako zenbat lanpostu bete dira eta zenbat daude kontratatzeke? Zein dira Psikologiako profesional horiek lanean ez egotearen arrazoiak?”

“Zer funtzio eta gaitasun zehaztu dira Oinarrizko Osasun Laguntzako Psikologiako lanpostu horietarako, Osasun Mentalak egiten duen arreta espezializatuarekin gainezarpenak egotea ekidite aldera?”

Une honetan hamasei pertsona daude kontratatuta lanpostu horietarako; lauk Psikologia Klinikokoaren espezialitate dute eta gainerakoak psikologo orokor sanitarioak dira. Arreta ematen diete Nafarroako heldu guztiei, eta laguntza landa eremuetako haur eta gazteei. Garatzeke dago Iruñeko zentroetako haur eta nerabeen arretarako eredu, eta horretarako hiru psikologo kontratatuta behar dira, baina zaila izaten ari da profesional gutxi daudelako eta baita aurkeztutako errekursoaren ondorioz ere.

Osasun Eskualde Oinarrizkoen banaketa hauxe da psikologiako langile bakoitzarentzat:

- Antsoain, Arrotxapea, Txantrea.
- Buztintxuri, San Jorge, Berriozar, Orkoi.

- San Juan, Iturrama, Ermitagaña.
- Lezkairu, Sarriguren, Aranguren, Mendillorri.
- Barañain I eta II, Zizur-Etxabakoitz, Gares.
- Azpilagaña, Arrosadia, Noain.
- Burlata, Uharte, Atarrabia, Agoitz, Auritz.
- Il Zabalgunea, Alde Zaharra, Izaba, Zaraitzu, Zangoza.
- Altsasu, Etxarri Aranatz, Irurtzun, Leitza.
- Doneztebe, Lesaka, Ultzama, Elizondo.
- Tafalla, Erriberri, Azkoién, Zarrakaztelu, Artaxoa.
- Lizarra, Villatuerta, Los Arcos, Allo, Antzin.
- San Adrián, Lodosa, Viana.
- Tuteria Ekialde, Tuteria Mendebalde.
- Valtierra, Buñuel eta Corellako Osasun Eskualde Oinarrizkoan Castejón udalerria.
- Cascante, Cintruénigo eta Corella (Castejón izan ezik)

Desordena emozionalei eta nahasmendu mental arinei (depresioa, antsietatea, somatizazioak, egokitze nahasmenduak) arreta eman nahi zaie Oinarrizko Osasun Laguntzan, modu integratzaile eta efizientean, esku hartze psikologikoak batez ere taldeko formatuan eginez, esku hartze transdiagnostikoko eredu batekin. Hau da ezarritako oinarrizko zerbitzu zorroa:

- Haur eta helduen ebaluazio psikologikoa.

- Banakako esku hartze psikologikoak haur eta gazteengan eta helduengan, arazoak konpontzeko eta aurre egiteko ereduetan ardatzuta.

- Taldeko esku hartzeak haur eta gazteen eta helduen artean, eredu transdiagnostikoetan oinarrituta.

- Esku hartzeak familietan.

- Esku hartze komunitarioak, nahasmendu mentala prebenitzeko eta osasun mentala sustatzeko programetan lagunduta.

- Oinarrizko Osasun Laguntzako profesionalen partekatutako esku hartzeak.

“Oinarrizko Osasun Laguntzako Psikologiako profesional horietatik, zenbaterik ematen diete arreta haur eta gazteei eta zein Eskualde Oinarrizkoetan? Aurreikusten diren lan-kargetarako nahikotzat jotzen al dira?”

Gaur egun landa eremuetan arreta ematen duten profesionalak helduei nahiz haur eta gazteei ematen diete arreta.

Iruñeko Barrutiko hiri zentroetako haur eta gazteei arreta espezifikoa emateko hiru psikologo jarri nahi dira, baina ez zaio horri ekin bidean den errekurtsoaren ondorioz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 8an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez-Cunchillos

## **11-24/PES-00054. Galdera, Ecofert Sansoain enpresan Zubietako ingurumen-gunetik iritsitako lixibiatuak eta/edo lohiak Iruñerriko Mankomunitatetik iritsitako hondakin organikoekin kutsatu ote diren jakitekoa**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Ecofert Sansoain enpresan Zubietako ingurumen-gunetik iritsitako lixibiatuak eta/edo lohiak Iruñerriko Mankomunitatetik iritsitako hondakin organikoekin kutsatu ote diren jakiteko egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-24/PES-00054 galdera egin du idatziz, Ecofert Sansoain enpresan Zubietako ingurumen instalaziotik datozen lohiak eta lixibiatuak kutsatuta egoteari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

– Gipuzkoako Ingurumen Guneak (CMG) bi instalazio ditu kokatuta Zubietan, Donostian. Lehenengoa (CMG-1) etxeko hondakinaren errefus frakzioaren alde aurreko tratamendu mekaniko eta biologikoa egiteko eta geroago errausketa labeak elikatzeke instalazioa da; bestea, berriz (CMG-2), digestio anaerobioko instalazio batean hondakin biologikoak kudeatzeko (biometanizazioa) eta zaborrak tratatzeko da.

– CMG-1 instalazioko tratamendu mekaniko eta biologikoko egonkortze aerobioaren zatian sortutako lixibiatuen zati bat, EHZ 19 08 12 hondakin uren tratamenduko lohien kodea dutenak, Ecofert Sansoain SLren instalaziora bidali dira.

– Iruñerriko Mankomunitatetik etorritako hondakinak, EHZ 200108 sukalde eta jatetxeetako hondakin biodegradagarrien kodea dutenak, Ecofert Sansoain SLren instalazioak ere jasotzen ditu.

– CMG-1 instalaziotik etorritako lixibiatuak ez zituzkeen Ecofert Sansoain SLk onartu beharko, likidoak baitira, eta, horrez gain, lixibiatuen baltsan gainezkatze arazoak sortzen ahal dituztelako.

– Ecofert Sansoain SLren ekoizpen prozesua jaso, nahastu eta pila aireztatuetan konpostatzea da, ingurumen baimen integratuan adierazitako baldintzetan, eta hondakin horretan sortutako lixibiatuak 3.000 metro kubikoko baltsa batean biltzen dira, pilak hezetzeko xedez ureztatzeke erabiltzen ahal izateko. Ildo horretan, baliteke CMG-1 instalazioko lixibiatuak kontaktuan jarri izana piletan dauden hondakinekin. Hondakin horiek Iruñerriko Mankomunitatetik edota beren hondakinak Ecoferterko instalaziora transferitu dituen beste edozein enpresatetik datozenak izaten ahal dira.

Hala ere, kontaktutik harago, beste kontu bat da kutsadura egon den ala ez. Departamentu honek ez ditu CMG-1 instalaziotik datorren hondakinaren analisiak, eta argitu du ez dela Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren eskumenetako bat. Hondakin horren analisiak izapidetze arrunt batean lortzeko aukera, lehenik eta behin, hondakinaren jatorriko administrazioari dagokio, zeinak analisi hori eskatzen ahal duen hondakinaren EHZ kodetxea egiaztatzerakoan (ez da nahitaezkoa), eta bigarrenik, Ecoferteren instalazioari berari dagokio, bere instalazioetan jasoko duen hondakinaren ezaugarriak egiaztatzeke eskatzen ahal duelako.

Hala ere, Ecoferteren instalazioan izandako gertakaria detektatu ondoren, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak baltsaren edukia- ren eta instalazioan dagoen konpostaren analisiak egin ditu, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza Nagusiaren eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez. Oraingoan, jasotako emaitzetan (oraindik partzialak dira) ez da kutsadura egoeraren berririk eman.

Ondorioz, garatzen den jarduera kontuan hartuta, litekeena da CMG-1 instalaziotik datozen lixibiatuak eta Iruñerriko Mankomunitateko hondakinak kontaktuan egon izana, baina ez dago kutsadurarik egon dela ondorioztatzeke moduko informaziorik, nahiz eta kontaktu hori gertatzen ahal zen.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## 11-24/PES-00055. Galdera, Ecofert Sansoain enpresan Gipuzkoatik iritsiak ez diren lixibiatuak eta/edo lohiak Iruñerriko Mankomunitatetik iritsitako hondakin organikoekin kutsatu ote diren jakitekoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Ecofert Sansoain enpresan Gipuzkoatik iritsiak ez diren lixibiatuak eta/edo lohiak Iruñerriko Mankomunitatetik iritsitako hondakin organikoekin kutsatu ote diren jakiteko egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-24/PES-00055 galdera egin du idatziz, Ecofert Sansoain enpresan Gipuzkoatik ez datozen lohiak eta lixibiatuak kutsatuta egoteari buruz. Hona

hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Nola Gipuzkoa ez den beste edozein jatorritatik ekarritako lohiak hala Iruñerriko Mankomunitatetik jasotakoak Ecofert Sansoain SLren instalazioan jaso eta konpostatze piletan tratatzen dira instalazioak duen ingurumen baimenarekin bat. Instalazioan hondakinak tipologiaren arabera banantzen dira, baina ez jatorriaren arabera, eta, hortaz, hondakinok nahasten ahal dira.

Beste kontu bat da kutsadurarik egon den. Ecofert Sansoain SLk duen ingurumen baimen integratuak baimena ematen du lohi jakin batzuk jasotzeko (taula erantsi da). Jatorria egokia bada, Iruñerriko Mankomunitatetik etorritako hondakin organikoekin nahasten ahal dira, eta, beraz, ezin daiteke esan nahaste hori kutsadura denik. Hori dela-eta, adierazten da ezen, lohien hondakina, jatorria zeinahi ere duen, kontaktuan egoten dela Iruñerriko Mankomunitatetik etorri eta piletan egoten diren hondakin organikoekin, baina ez ditu kutsatzen.

Prozesu eta Kudeaketa baimendua instalazioan	Hondakinen deskribapena	Hondakinaren EHZ kodea
KONPOSTATZEA (R3)	Ikuzketako eta garbiketako lohiak	020101
	Ikuzketako eta garbiketako lohiak	020201
	Efluateak in situ tratatzearen ondoriozko lohiak	020204
	Efluateak in situ tratatzearen ondoriozko lohiak	020305
	Efluateak in situ tratatzearen ondoriozko lohiak	020403
	Efluateak in situ tratatzearen ondoriozko lohiak	020502
	Efluateak in situ tratatzearen ondoriozko lohiak	020603
	Efluateak in situ tratatzearen ondoriozko lohiak	020705
	Efluateak in situ tratatzearen ondoriozko lohiak, 03 03 10 kodean zehaztutakoez bestelakoak	030311
	Lohiak, bereziki efluateak in situ tratatzearen ondoriozkoak, kromorik ez dutenak	040107
	Efluateak in situ tratatzearen ondoriozko lohiak, 02 19 kodean zehaztutakoez bestelakoak	040220
	Udal hondakinen tratamendu anaerobikoaren digestio lohiak	190604
	Animalia- eta landare-hondakinen tratamendu anaerobikoaren digestio lohiak	190606
	Hiriko hondakin uren tratamenduaren lohiak	190805
	Industriako hondakin uren tratamendu biologikotik datozen lohiak, 19 08 11 kodean zehaztutakoez bestelakoak	190812
Industriako hondakin uren beste tratamendu batzuetatik datozen lohiak, 19 08 13 kodean zehaztutakoez bestelakoak	190814	
Putzu septikoetako lohiak	200304	

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

---

## 11-24/PES-00056. Galdera, Nafarroako Inbertsio Institutuko Inbertsio Batzordearen aktak argitaratzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Nafarroako Inbertsio Institutuko Inbertsio Batzordearen aktak argitaratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du –2024ko urtarrilaren 29ko 773 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– jakiteko ea zergatik ez diren argitaratzen Nafarroako Inbertsio Institutuaren (INI) Inbertsioen Batzordearen aktak (11-

24/PES-56). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 21.2 e) artikuluan xedatzen duenez, argitara eman behar dira “sozietate publikoetako administrazio kontseiluen aktak, datu pertsonalak berezi ondoren”.

Artikulu hori betetzeko, administrazio kontseiluetako aktak sozietate publikoaren webgunean argitaratzen dira, gardentasunaren atalean.

Arau horrek ez du jasotzen sozietateko beste organo batzuetako aktak argitara ematea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez



## **11-24/PES-00057. Galdera, hezkuntza itunduko sindikatuekiko eta patronalarekiko lan-mahai bat sortzeari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak hezkuntza itunduko sindikatuekiko eta patronalarekiko lan-mahai bat sortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Popularrak aurkeztutako 11-24/PES-00057 idatzizko galderari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Kontseilariak Parlamentu honetan zenbaitetan adierazi duenarekin bat, irakasleen sektore publikoan ez bezala, Nafarroako Gobernua ez da itunpeko ikastetxeetako langileen patronala, eta, izan ere, beren sindikatuen ordezkariak horrekin negoziatu behar dute.

Hau da, sektore jakin bateko akordioak eta hitzarmen kolektiboak patronalaren eta sindikatuen artean ituntzen dira, eta Nafarroako Gobernuak ezin du hitzarmenotan parte hartu. Ildo horretatik,

Nafarroan itunpeko hezkuntzaren alorrean beti patronalaren eta sindikatuen artean izenpetutako akordio baten indarraldia amaitzen denean, Nafarroako Gobernuak patronalekin oinarrien akordio bat izenpetzen du, eta horietan jasota geratzen da ezen, patronalak bere sindikatuekin negoziatzean oinarri horiek errespetatzen baditu, Nafarroako Gobernuak akordioa onartuko duela, eta hori, eskusiboki, ordainsariei, orduen murrizketari, erretiro partzialari eta moduluei eragiten dieten akordioak gerora Hezkuntza Departamentuak aplikatu behar dituelako; horregatik finkatzen ditu negoziazio prozesuaren oinarriak, funtsean aurrekontuei lotutakoak,

Aurrekoa gorabehera, 2019az geroztik, Hezkuntza Departamentua hezkuntzaren sektoreko sindikatuekin bildu da horiek eskatu dioten bakoitzean, eskatu izan duten informazioa emate aldera.

Azaldutakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak ez du aurreikusten lanerako mahai bat sortzea itunpeko hezkuntzako sindikatuekin eta patronalarekin, Nafarroako Gobernua ez baita patronalen eta sindikatuen artean negoziatu eta bitarteko izan behar duen figura.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## 11-24/PES-00058. Galdera, hezkuntza itunduan irakasleak ordeztuari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak hezkuntza itunduan irakasleak ordeztuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrak aurkeztutako 11-24/PES-00058 idatzizko galderari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Oso tara edo hein batean funts publikoekin aritzen diren irakaskuntza pribatuko enpresen VII. Hitzarmen Kolektiboak eta Nafarroako Ikastolen Hitzarmen Kolektiboak eragindako irakaskuntza itunduaren sektoreko 2022ko ekainaren 20ko Akordioak lehenengo apartatuan ezartzen ditu ordezkapenen araubidean aplikatuko diren neurriak. Hau xe dio:

“Hezkuntza Departamentuak, oro har, irakaskuntza publikoaren antzera gauzatuko du ordainketa eskuordetuan dauden irakasleen ordezkapena etapa guztietan; hau da, ordezkapena aldi baterako ordezkapena eragiten duen egoera sortu eta HIRUGARREN egun naturaletik aurrera ordainduko da, baldin eta aldi baterako ezintasunagatiko bajaren parte medikoan ZAZPI egun natural edo gehiago irauten duela kalkulatzeko bada (bajaren iraupena gorabehera).

Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, irakasle titularren bajaren lehen egunetik ordainduko da ordezkapena, honako kasu haue tan:

– Ordeztutako irakasleak hezkuntza laguntzaren berriazko premia duten ikasleei arreta ematen dienean.

– Ordeztutako irakasleak bi hezkuntza-lerro baino gutxiago ezarrita dituzten ikastetxeetan lan egiten duenean.

– Ordeztutako irakasleak Batxilergoko bigarren mailan irakasten duenean.

– Ordezkapenaren arrazoia amatasuna, aitatasuna, adopzioa edo harrera (adopzio aurrekoa, iraunkorra edo sinplea) edo arriskuko haurdunaldiaren ondoriozko baja denean.

Era berean, VII. Hitzarmenaren 42. artikuluko baimenen kasuan, 15 egun lehenago eskatzen badira eta 3 eta 6 egun arteko iraupena badute, hirugarren egunetik aurrera ordezkapena ordainduko da, betiere horren arrazoia hauetako bat bada:

– Bigarren mailarainoko senideak edo osasun- edo mendekotasun-arazoak dituztenak zaintzeko arrazoiak, behar bezala egiaztatuta.

– Haurra haur-eskola edo ikastetxe berrira egokitze aldi laguntzea eta parte hartzea.

– Eskatzailearen lanpostuarekin lotura zuzena duten prestakuntza jarduerak egitea, baldin eta ikastetxeko zuzendariak uste badu jarduera hori onuragarria izanen dela ikastetxean egiten den jarduerarako.

Gainerako baimenetan, lehenengo paragrafoan ezarritakoa aplikatuko da.

Baldintza horiek aldatzen ahalko dira irakaskuntza publikoan irizpideak aldatzen badira.

Arestian aipatutako ordezkapen guztiak EDUCA aplikazioan datuak egiaztatu ondoren emanen dira. Horretarako, ikastetxe bakoitzeko plantilla ikasturte bakoitzeko urriaren 1ean sartuta eta eguneratuta egon beharko da”.

Beraz, irakaskuntza itunduaren sektorearen akordioan ezarrita dagoenez, irakasleak hezkuntza itunduan ordezkatzeko protokoloa jadanik berdin du hezkuntza publikoan dagoenarekin.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## 11-24/PES-00059. Galdera, hezkuntza itunduko irakasle ez diren langileen ordainketa eskuordetuari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak hezkuntza itunduko irakasle ez diren langileen ordainketa eskuordetuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrak aurkeztutako 11-24/PES-00059 idatzizko galderari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hezkuntzaren Lege Organikoak 117. artikuluan ezartzen du itun moduluen egitura. Bertan adierazten da irakasleen soldatak Administrazioak ordainduko dizkiela irakasleei ordainketa eskuor-

detu gisa eta ikastetxeko entitate titularraren ize-nean.

Halaber, adierazten da administrazioa eta zerbitzuetako langileei lotutako zenbatekoak, mantentze, kontserbazio eta funtzionamendu gastu arruntak eta inbertsio errealak birjartzeari dagozkionak beste gastu batzuei esleitutako zenbateko gisa bereiziko direla, eta ere berean jotzen ahalko direla irakaskuntzakoa ez den zuzendari-tzako eginkizuna gauzatzetik eratorritako zenbatekoak.

Horrenbestez, Hezkuntza Departamentuak ezin du legez gauzatu hezkuntza itunduko irakasleen ordainketa eskuordetua zeren eta, Hezkuntzaren Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, ezin baita ordainketa eskuordetuan sartu hezkuntza itunduan irakasle ez den langilerik.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## 11-24/PES-00060. Galdera, Gipuzkoako ingurumen-gunea-1 fasetik Ecofert Sansoain SL enpresak Artaxoan dituen instalazioetara hondakinak eramateari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Gipuzkoako ingurumen-gunea-1 fasetik Ecofert Sansoain SL enpresak Artaxoan dituen instalazioetara hondakinak eramateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-24/PES-00060 galdera egin du, hondakinak Gipuzkoako Ingurumen Gunetik (1 fasea) Ecofert Sansoain SL enpresak Artaxoan dituen instalazioetara eramateari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunak jakinarazi al dio noizbait Nafarroako Foru Komunitateari "Esir" sistemaren bidez Gipuzkoako Ingurumen Gunea-1. fasetik Ecofert Sansoain SL enpresak Artaxoan dituen instalazioetara egin behar zuen hondakin-garraioa?

– Eusko Jaurlaritzak ez dio hondakinen garraioari buruzko jakinarazpenik eman Nafarroako Gobernuaren Ingurumen Departamentuari CMG-1 instalaziotik Ecofert Sansoain SLra garraiatutako hondakinari buruz (EHZ kodea: 19 08 12); izan ere, jakinarazpen horiek hondakinak desagerrarazteko garraiatzen direnean soilik exijitzen ahal dira, ez dira ez hondakin arriskutsuak ez etxeko hondakin nahastuak (horiek EHZ kodea 20 03 01 da).

– Prozedura elektronikoa alde zuzeneko jakinarazpena behar duten hondakinak garraiatzeko soilik erabiltzen da, eta, beraz, ez da zertan erabili.

2. Aurreko galderan aipatutako hondakinen garraioari buruzko jakinarazpenik egin bazen, zenbatetan egin ziren?

– Ez zen jakinarazpenik egin.

3. Zein LER kode zuten "eSIR" sisteman sartzen ziren jakinarazpen horiek?

– Ez dagokio.

4. 19 08 12 LER kodea zuten hondakinak baziren, arriskutsua den 19 08 11\* kodearen "ispilukodea" izanik, zer dela-eta ez zen exijitu karakterizazio bat egiteko, hondakin horrek substantzia arriskutsuak zituen ala ez egiaztatzeko, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2019ko martxoaren 28ko epaian argi utzi zuen moduan?

– Lehenengo erantzunean azalduetakoa berresten da.

– Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legearen 20.4 artikularekin bat, hasierako ekoizleak hondakinak behar bezala tratatzeko beharrezko informazioa eman behar die hondakinak kudeatzeko baimena duten enpresei, eta horrek barnean hartzen du hondakinek karakterizazioa.

– Halaber, 7/2022 Legearen 23.3 artikularekin bat, hondakinak tratatzeko jardueraren bat egin duten erakunde eta enpresek egoki diren egiaztapenak egin behar dituzte jaso edota onartu ahal izateko, azken hori behar izanez gero, tratamendurako kontratuan hitzartutakoarekin bat, eta horrek ere barnean hartzen du hondakinen karakterizazioa.

5.- Nafarroako Foru Komunitatea agertu al da noizbait Gipuzkoako Ingurumen Gunea-1. fasetik Ecofert Sansoain SL enpresak Artaxoan dituen instalazioetara hondakin-garraioaren aurka? Zergatik?

– Lehenengo erantzunean azalduetakoa berresten da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

**11-24/PES-00061. Galdera, familientzako elkarguneei buruzkoa****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porrás jaunak familientzako elkarguneei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 2ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás jaunak 11-24/PES-00061 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako honi buruz:

- Zer unetan da familia elkartzeko guneak Nafarroako gizarte zerbitzuetako barruti guztietara hedatzeko prozesua? Zer irizpide erabiltzen dira erabakitzeke barruti batean familia elkartzeko gune bat ezarriko den ala ez? Zer datu eman dezake zure Departamentuak elkartzeko guneetara iristen diren kasuen kopuruari buruz, etxebizitza-eremuaren arabera?

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Iparaldeko Barrutia	43
Iruñerriko Barrutia	242
Iruñeko Barrutia	224
Lizarrako Barrutia	26
Tafallako Barrutia	103
Tuterako Barrutia	139
Beste batzuk	46
<b>GUZTIRA</b>	<b>823</b>

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Familia elkartzeko guneak gizarte zerbitzuetako askotariko barrutietara hedatzeko prozesua epaitegiek eta babes sistemak berak zerbitzu horretarako egindako eskaeren eskariaren arabera gauzatzen joan da. Azken hedapena babes sistemarako elkartzeko gune espezifiko bat sortzeko izan zen, bertan artatu ahal izateko babes neurria familia harrera duten adingabeen familia biologikoen topaketak. Eskariak (200 adingabe baino gehiago familia harreran) zerbitzu espezifiko bat sortzea eskatzen zuen, eta xede populazioaren gehiengoa Iruñean eta Iruñerrian zegoen.

Une honetan eskaera bat dago zerbitzu hori Lizarrako Barrutira hedatzeko. Eskariak nahikoa izan behar du zerbitzua efizientea izateko, kontuan hartuta funtzionatzeko gutxieneko langile kopuru bat behar duela: Familia esku-hartzeko 2 teknikari lanaldi osoan, koordinazioko % 25eko lanaldia, psikologiako % 25eko lanaldia (Tuterako eta Tafallako familia elkartzeko guneek gaur egun dituzten langileak dira).

Lizarrako epaitegietan artatzen diren prozeduren analisia eginen da, baloratzeko ea datorren urterako barruti horretara hedatzen ahal den.

Artatutakoen jatorrizko gizarte zerbitzuen barrutiari dagokionez, 2023an honako hau izan zen banaketa:

## 11-24/PES-00062. Galdera, Lodosatik gertuko herrietatik DBHko ikasketak euskaraz egiteko garraioari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Lodosatik gertuko herrietatik DBHko ikasketak euskaraz egiteko garraioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak 11-24/11-24-PES-00062 galdera egin du, idatziz erantzuteko. Hona hari erantzuteko Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak ematen dion informazioa:

Nafarroako Foru Komunitatean eskola garraioaren zerbitzuaren antolaketa eta haren funtzionamendua, eta eskola-jantokirako banakako laguntzak arautzen dituen Hezkuntzako kontseilariaren maiatzaren 11ko 35/2022 Foru Aginduaren 2. artikuluekin bat, ikasleek eskola garraioaz baliatzeko honako betekizun hauek bete behar dituzte:

“a) Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko, Lanbide Heziketa Bereziko, oinarrizko mailako heziketa zikloetako, Batxilergoko eta erdi mailako heziketa zikloetako ikasketak egitea, foru agindu honetan zehazten diren baldintzetan.

b) Nafarroako Gobernuak ezarritako eskola zonifikazioaren arabera dagokion ikastetxe publikoan eskolatuta egotea (80/2019 Foru Dekretua, uztailaren 3koa, Nafarroako Foru Komunitateko Ikastetxe Publikoen Sarea berrantolatzen duena)”.

Puntu horren harira, adierazi behar da foru agindu bidez Lodosako udalerrian D ereduari (euskara) dagokion zonifikazioa aldatuko dela. Zonifikazio horrek, Lodosaz gain, honako hauek hartuko ditu barnean:

- Sartaguda
- Imas
- Mendabia
- Elizagorria
- Azagra
- Andosilla
- Carcar
- San Adrián
- Sesma

Azkenik, ikasleak garraioaz baliatzeko azken betekizuna hau da: “c) Ohiko bizilekua ikastetxea dagoen udalerrira ez den beste batean izatea, eta bien arteko distantzia hiru kilometrotik gorakoa izatea, lerro zuzenean zenbatuta”.

Aurrez azaldutakoa ikusita, eta oro har, erantzuna da udalerrira horietako ikasleak eskola garraioaren onuradun izanen direla 2024/2025 ikasturterako.

Iruñean, 2024ko otsailaren 28an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## 11-24/PES-00063. Galdera, “Nafarroako Inbertsio Institutua, SL” sozietate publikoari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak “Nafarroako Inbertsio Institutua, SL” sozietate publikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du –2024ko otsailaren 5eko 998 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– Instituto Navarro de Inversiones SL deritzon sozietate publikoari buruzko informazioa eskatzeko (11-24/PES-63). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Galdera honi dagokionez:

– Zeri buruz ari gara 1. puntuan "Nafarroako Inbertsio Institutuaren kontuak Nafarroako Gobernuarekin bateratu ez izanari buruzko aldeko iritzirik eman ez izana" esatean?

Txostenaren 1. puntuak esan nahi du, txostenean bertan adierazten denez, a priori, Estatuko Kontu-hartzailtza Nagusiari (IGAE) egindako aurretiatzko kontsulten arabera, enpresa berria Administrazio Publikoen Sektorean kokatuko dela, Tokiko azpisektorean (S.1312).

Galdera honi dagokionez:

– Zeri buruz ari gara eta zer izan ziren txosten horretako 5. orrialdean aipatzen diren "aurretiatz egindako kontsultak"? Nork egin zituen kontsulta horiek, nola egin ziren, noiz egin ziren eta zein izan zen emaitza?

Aurretiatzko kontsulta horiek Kontu-hartzailtza zuzendari nagusiak Estatuko Kontu-hartzailtza Nagusiari egin zizkion, eta erakunde horrek 2021eko urriaren 26an eta 2022ko martxoaren 10ean erantzun zituen, posta elektronikoki bidez. Honako hauek dira horien edukiak:

Nork: Bascones Ramos, Juan Miguel

Noiz bidalia: osteguna, 2022ko martxoaren 10a 9:20

Norentzat: Arrizabalaga Rodríguez, Iñaki (Ekonomia)

Gaia: RV: Finantzen Nafar Institutua

Egun on, Iñaki:

Nafarroako Sustapen Institutuari buruz bidalitako dokumentazioa aztertuta (2022-01-11ko Jarduketa, Inbertsio eta Finantzaketa Plana; Batzorde Betearazlearen Erregelamendua), unitate hori Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak eratu nahi baitu, garrantzitsua da honako informazio hau kontabilitate nazionalerako sailkapenari begira (SEC2010):

- Finantza politikako eta kreditu publikoko tresna publiko gisa eratzten da, Nafarroako Gobernuaren garapen ekonomiko eta sozialerako politika estrategikoak sustatzeko.

- Institutuaren gobernu organo gorena (administrazio-kontseilua) presidenteak (Ekonomia eta Ogasun Kontseilaritzako titularrak) eta zazpi kidek osatzen dute. Zazpi elehun horietatik bost Nafarroako Gobernuako kideak dira eta hiru Ekonomia Kontseilaritzak izendatutako pertsona independenteak. (Banaketa hori eginez gero, badirudi zortzi elehun izanen liratekeela). Administrazio Kontseiluak orientazio estrategikoak ezartzen ditu eta Batzorde Betearazlea gainbegiratu du. Batzorde Betearazlea banakako inbertsio-erabaki teknikoak hartzeaz arduratzen den organoa da, eta Erakundearen Administrazio Kontseiluak aukeratzen du.

- Nafarroako Institutuaren Batzorde Betearazlea Administrazio Kontseiluak hautatutako 7 kidek osatzen dute, finantza, ekonomia, lege eta gizarte arloan gaitasun, ospe eta esperientzia aitortua duten pertsonen artean aukeratutak.

- Aurreikusten den hasierako zuzkidura 30 milioi eurokoa da, eta Nafarroako Gobernuak jarriko du, urtean 10 milioi euro. Halaber, Nafarroako Sustapen Institutuaren kapitalari Nafarroaren Garapen Sozietatearen (Sodena) balioa eta arrisku-kapitala sortzeko arloak egiten dion ekarpena jasotzen da. Eremu hori Nafarroak o FKren bateratze perimetroan sartuta dago; 20,5 milioi euroko balioa duenez, Institutuan sartuko dira

Sodenako eremu horretako aktiboak, pasiboak eta giza baliabideak.

- Institutuaren jarduketa ildoak honako hauek dira:

- Arrisku-kapitaleko tresnetan parte hartzea.

- Enpresentzako inbertsio maileguak/Enpresentzako abalag/Enpresentzako partaidetza maileguak/Nafarroa Suspertu Planaren finantzaketa estrategikoa - Next Generation EB/Nafarroarako estrategikoak diren enpresen partaidetzak hartzea.

- Ikerketa eta analisi sozioekonomikoak egitea.

- Hirurtekoko aurreikuspenak (2022, 2023 eta 2024) inbertsio estrategikoak, arrisku-kapitaleko inbertsioak eta enpresentzako kredituak egitea aurreikusten du, eta hiru urte horietako bakoitzean finantza tresnak besterentzearen ondorioz mozkinak sortzea aurreikusten da.

- Institutua Nafarroako Enpresa Korporazioaren (NEKP) prozesuetan integratuko da alderdi juridikoetan, finantzarioetan, giza baliabideetan, komunikazioan, erosketetan, kontratazio publikoan eta erantzukizun sozial korporatiboan.

Aurrekotik ondorioztatzen denez, Nafarroako Sustapen Institutuak ez du nahikoa autonomia SECren arabera unitate instituzionalizat hartua izateko, Nafarroako Gobernuaren politika publikoko tresna gisa eratzten baita, bere aurrekontuaren eta Sodenaren (Nafarroako Foru Komunitateko merkatukoa ez den unitatea) ekarpenen bidez finantzatzen baita, eta bere gobernu organo gorena (administrazio kontseilua) Foru Komunitateko Gobernuko eta Administrazio kideek osatzen dute gehienbat. Beraz, kontabilitate nazionalako sailkapena Nafarroako Gobernuak kontrolatutako unitatearen sailkapena izanen da, Administrazio Publikoen Sektorearen barruan sailkatua, Tokiko Azpisektorean (S.1312); hortaz, haren eragiketak eta saldoak aipatutako azpisektoreko kontu ekonomikoetan erregistratuko dira, defizit/superabit eta zorpetze publikoko saldoei eraginez.

Besarkada bat.

Juan Miguel Báscones Ramos.

Kontabilitateko Bulego Nazionalako zuzendaria

Estatuko Administrazioaren Kontu-hartaitzeta Nagusia

Ogasuneko Ministerioa. 91 536 70 78

Dirección.ONC@igae.hacienda.gob.es

Nork: Arrizabalaga Rodríguez, Iñaki (Ekonomia)

Noiz bidalia: osteguna, 2022ko urtarrilaren 13a 15:02

Norentzat: Kontabilitateko Bulego Nazionalaren Zuzendaritzaren Zentroko arduraduna <Direccion.ONC@igae.hacienda.gob.es>

Gaia: RE: Finantzen Nafar Institutua

Telefonoz azaldu dizudanarekin bat, sortu nahi den erakundearen Jarduketa, Inbertsio eta Finantzaketa Planaren beste bertsio bat bidaltzen dizut. Kapitala indartu da kalitatezko aktibo finantzarioekin. Mugaeguna berehalakoa dutenez, aukera ematen dute erakundearen funtzionamenduaren itxura funtzionamendu arrunta izan behar duenaren oso antzekoa izateko, eta hasierako aldia gairatuz, zeinean lehenengo aktibo finantzarioak osatu behar baitira. Batzorde Betearazlearen Erregelamendua ere bidaltzen dizut, organo horrek hartuko baititu inbertsioei buruzko erabaki zehatzak, eta egiten dituen eragiketetan errentagarritasuna lortzeko aginduaren menpe jardungo du.

Eskertuko nizueke zuek erabakitzea erakunde hori Nafarroako Foru Komunitatearen Sektore Publikoan sartu ala ez.

Ongi izan

Kontu-hartaitzako zuzendari nagusia: Iñaki Arrizabalaga Rodríguez

Nork: Sacristán Fernández, M<sup>a</sup> Isabel

Noren izenean: Kontabilitateko Bulego Nazionalaren Zuzendaritzaren Zentroko arduraduna

Noiz bidalia: asteartea, 2021eko urriaren 26a, 14:50

Norentzat: Arrizabalaga Rodríguez, Iñaki (Ekonomia)

Gaia: Finantzen Nafar Institutua

Iñaki agurgarria:

Finantzen Nafar Institutuari buruz bidalitako dokumentazioa aztertu da (estatutuen zirriborroa, Jarduketa, Inbertsio eta Finantzaketa Plana), Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuak eratu nahi duen unitatea baita, eta honako informazio hau da garrantzitsua kontabilitate nazionalan sailkatze aldera (SEC2010):

- Finantza politikako eta kreditu publikoko tresna publiko gisa eratzten da, Nafarroako Gobernuaren garapen ekonomiko eta sozialerako politika estrategikoak sustatzeko.



- Institutuaren gobernu organo gorena (administrazio-kontseilua) presidentek (Ekonomia eta Ogasun Kontseilaritzako titularra) eta zazpi kidek osatzen dute. Zazpi eledun horietatik bost Nafarroako Gobernuo kideak dira eta hiru Ekonomia Kontseilaritzak izendatutako pertsona independenteak. (Banaketa hori eginez gero, badirudi zortzi eledun izanen lirakeela). Administrazio Kontseiluak orientazio estrategikoak ezartzen ditu eta Batzorde Betearazlea gainbegiratzen du. Batzorde Betearazlea banakako inbertsio-erabaki teknikoak hartzeaz arduratzen den organoa da, eta Erakundearen Administrazio Kontseiluak aukeratzen du.

- Aurreikusten den hasierako zuzkidura 30 milioi eurokoa da, eta Nafarroako Gobernuak jarriko du, urtean 10 milioi euro.

- Institutuaren jarduketa ildoak honako hauek dira:

- Nafarroako sektore publikoaren zorpetze eta diruzaintzako zerbitzuak.

- Kapitalean parte hartzea eta laguntza finantzarioa ematea Nafarroako enpresa sektoreari.

- Nafarroako Gobernuaren politika estrategikoak finantzatzea.

- Inbertsioak eta azterketa sozioekonomikoak egitea.

- Hirurtekoko aurreikuspenak (2022, 2023 eta 2024) inbertsio estrategikoak, arrisku-kapitaleko inbertsioak eta enpresentzako kredituak egitea aurreikusten du, eta hiru urte horietako bakoitzean galerak aurreikusten dira.

Aurrekotik ondorioztatzen denez, Finantzen Nafar Institutuak ez du nahikoa autonomia

SECren arabera unitate instituzionaltzat hartua izateko, Nafarroako Gobernuaren politika publiko tresna gisa eratzten baita, bere aurrekontuaren ekarpenen bidez finantzatzen baita, eta bere gobernu organo gorena Foru Komunitateko Gobernuo eta Administrazio kideek osatzen dute gehienbat. Horrenbestez, kontabilitate nazionalan honela sailkatuko da:

Nafarroako Gobernuak kontrolatutako unitatea, Administrazio Publikoen Sektorearen barruan sailkatua, Tokiko Azpisektorean (S.1312); hortaz, haren eragiketak eta saldoak aipatutako azpisektoreko kontu ekonomikoetan erregistratuko dira, defizit/superabit eta zorpetze publikoko saldoei eraginez.

Ongi izan

Juan Miguel Báscones Ramos.

Kontabilitateko Bulego Nazionaleko zuzendaria

Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzaitza Nagusia

Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioa

91 536 70 78

Dirección.ONC@igae.hacienda.gob.es

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

## 11-24/PES-00064. Galdera, 2023an zehar lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea gauzatzeko espedientei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak 2023an zehar lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea gauzatzeko espedientei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00064). Hona hemen galdera horrek dioena:

– Nafarroako Gobernuak lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea gauzatzeko zenbat espediente egin ditu 2023an zehar?

– Zenbatean?

– Zer herritan?

Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiak lehentasunez erosteko eskubidea zortzi aldiz egikaritu zuen 2023an.

Hauek dira udalerrriak eta zenbatekoak:

<b>UDALERRIA</b>	<b>PREZIOA</b>
CASTEJÓN	61.200,00 €
CASTEJÓN	70.400,00 €
CASTEJÓN	70.400,00 €
CASTEJÓN	61.941,00 €
CASTEJÓN	69.120,00 €
ORKOIEEN	176.300,00 €
IRUÑA	194.868,67 €
IRUÑA	174.340,30 €

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

## 11-24/PES-00065. Galdera, Ecofert eta Lacoya enpresen Artaxoako plante-tako hondakinen analisiari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artiku-luan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Ecofert eta Laco-ya enpresen Artaxoako plantetako hondakinen analisiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsaila-ren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru par-lamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-24/PES-00065 galdera egin du idatziz, Ecofert Sansoain eta Lacoya Medioambiental enpresen Artaxoako instalazioetako hondakinen analisiari buruz, 2024ko urtarrilaren 31ko prentsaurrekoan aipatu baitziren. Hona hemen Landa Garapene-ko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ema-ten dion informazioa:

1) Iragandako denboran metal astunak dekan-tatu ahal izan diren baltsan hondoa edo ohiak analizatu al dira?

Baltsan dagoen likidoa analizatu da, hau da, lixibiatua bera. Ez da planteatu baltsaren hondoko lohia analizatzea.

2) Lixibiaturik atera ahal izan al dute analisia egin aitzin?

Baltsan dagoen likidoa analizatu da, hau da, konpostatze prozesuaren ondoriozko lixibiatua bera. Ez da solido bat, zeinetik lixibiatu bat lortzen baita; ez du zentzurik material likido batetik lixibia-tu bat lortzeak.

3) Diluzio-prozesurik gertatu ahal izan al da –alegia, likido ez toxikoarekin nahastea, emaitza “hobetzea” ekarrita–?

Baltsek xede dute Ecofert Sansoain SL eta Desarrollos Medioambientales La Coya SL enpre-sen instalazioetan prozesuaren ondorioz dauden lixibiatuak eta bertako euri urak biltzea. Baltsetan dagoen likidoa ekotoxikoa izaten ahal da arriskuaren ezaugarria duten materialak eta arrisku hori ez dutenak sartzearen eta ateratzearen arabera, horren barnean hartuta euri urak. Hondakinak

laginketa egiten den unean dituen ezaugarriak erakusten ditu analisiak.

4) 2023ko otsailean egindako analisiaren emaitza ekotoxikoa da ala ez?

Hondakin baten arriskugarritasun ezaugarriak bi modutan zehazten ahal dira: bata, hondakina-ren konposizioan oinarrituta, eta Kontseiluaren 2017ko ekainaren 8ko 2017/997 (EB) Erregela-menduko irizpideak aplikatuta (Hondakinen Espar-ru Zuzentarauaren III. eranskina aldatzen du); bestea, Batzordearen 2008ko maiatzaren 30eko 440/2008 (EE) Erregelamenduan agertzen diren ekotoxikotasun saiakuntzen bidez.

Hondakin bera analizatzeko bi metodoak erabiltzen badira, kontuan izan behar da, Ba-tzordearen 2014/955/EB Erabakiaren arabera, hondakin baten arrisku-ezaugarri bat saiakuntza baten bidez ebaluatzen bada, eta substantzia arriskutsuen kontzentrazioak HEZ zuzentarauaren III. eranskinean adierazten den moduan aplikatuz gero, saiakuntzaren emaitzak gailenduko direla.

Oro har, errazagoa izaten da hondakinaren konposizioa laborategian zehaztea eta 2017/997 (EB) Erregelamenduko irizpideak aplikatzea, baina hondakinaren konposizioa ezagutzen ez bada eta ezin bada analisi bidez zehaztu, ekotoxi-kotasunaren ebaluazioa ekotoxikotasun saiakuntzen bidez egiten ahal da (ur-toxikotasun akutuko saiakuntzak, ur-toxikotasun kronikoko saiakuntzak eta lehorreko ingurumenerako toxikotasun saiakuntzak).

Kasu honetan, ez dakigu zer konposizio duen hondakinak, hainbat jatorritako hondakinak jaso-tzen dituzten bi konpostatze instalazioetako lixi-biatuen baltsetako likidoa baita, eta, zehazki, ins-talazio horietako batean instalaziora iritsi behar ez zuten hondakinak jaso baitira. Horregatik guztia-gatik, saiakuntzara jotzen da.

Emaitzen interpretazioari dagokionez:

• 7/2022 Legearen arabera, I. eranskinean (Hondakin arriskutsutzat kalifikatzeko aukera ematen duten hondakinen ezaugarriak), “n) HP 14 Ekotoxikoa” deritzon puntuan: ingurumeneko kon-partimentu baterako edo gehiagorako berehalako arriskuak edo arrisku diferituak dituzten edo izaten ahal dituzten hondakinak dira. Baldintza haueta-koren bat betetzen duten hondakinak arriskutsu gisa sailkatuko dira HP 14ren arabera:

• Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1272/2008 (EE) Erregelamendua, 2008ko abenduaren 16koa, substantzien eta nahasketen sailkapenari, etiketatzeari eta ontziratzeari buruzkoa, eta 67/548/EEE eta 1999/45/EE Zuzentarauak aldatu eta indargabetu eta 1907/2006/EE Erregelamendua aldatzen duena.

4.1.3.3. Nahasketak sailkatzea, nahasketari buruzko datuak eskura daudenean.

4.1.3.3.1. Nahasketaren ur toxikotasuna zehazteko saiakuntzak egin direnean, substantzietarako hartutako irizpideen arabera sailkatuko da, baina kategoria akuturako soilik. Sailkapena arrain, krustazeo, alga nahiz landareetarako datuetan oinarrituko da. Ezin dira nahasketak toxikotasun kronikoaren kategorian sailkatu CL50 edo CE50 datuen arabera; izan ere, nahasketak ingurumenean duen toxikotasunari eta destinoari/portaerari buruzko datuak behar dira, eta nahasketak berez degradatzeko eta biometatzeko daturik ez dago. Kasu honetan, ezin dira aplikatu toxikotasun kronikoaren irizpideak sailkapenerako, ezin direlako interpretatu nahasketa baten degradagarritasun- eta biometaketa-saiakuntzetatik eratorritako datuak. Datu horiek substantzia indibidualetarako baino ez dute zentzua.

4.1.3.3.2. Nahasketaren toxikotasun akutuari buruzko saiakuntzen datuak (CL50 edo CE50) eskura daudenean, datu horiek eta osagaien toxikotasun kronikoaren araberrako sailkapenari buruzko informazioa (epe luzera) saiakuntzan erabiliko nahasketen sailkapena osatzeko erabiliko dira, jarraian adierazten den moduan. Gainera, toxikotasun kronikoari buruzko datuak (NOEC) ere erabiliko dira, eskuragarri daudenean.

(a) Saiakuntzan erabilitako nahasketaren  $C(E)L50 \leq 100$  mg/l eta nahasketa horren Noec  $> 1$  mg/l edo ezezaguna da:

– Nahasketa 1. kategoria akutuan sailkatzea (nahastearen CL50 edo CE50 esperimentalak  $< 1$  mg/l), edo ez da beharrezkoa sailkapen akutua egitea (nahastearen CL50 edo CE50 esperimentalak  $> 1$  mg/l).

– Metodo batukaria aplikatzea (ikus 4.1.3.5.5) 1, 2, 3 edo 4. kategoria kronikoetan sailkatzeko, edo sailkapen hori beharrezkoa ez dela zehazteko;

(b) Saiakuntzan erabilitako nahasketaren  $C(E)L50 \leq 100$  mg/l eta nahasketa horren Noec esperimentalak  $> 1$  mg/l:

– Ez dago kategoria akutuan sailkatu beharrik;

– Metodo batukaria aplikatzea (ikus 4.1.3.5.5) 1. kategoria kronikoan sailkatzeko. Nahasketa ez bada kategoria horretan sailkatzen, kategoria kronikoan sailkatzea ez da beharrezkoa izanen.

(c) Saiakuntzan erabilitako nahasketaren  $C(E)L50ak > 100$  mg/l edo uretan disolbatzeko mugaz gaindikoak eta nahasketa horren Noec  $\leq 1$  mg/l edo ezezaguna da:

– Ez dago kategoria akutuan sailkatu beharrik;

– Metodo batukaria aplikatzea (ikus 4.1.3.5.5) 4. kategoria kronikoetan sailkatzeko, edo sailkapen hori beharrezkoa ez dela zehazteko;

(d) Saiakuntzan erabilitako nahasketaren  $C(E)L50ak > 100$  mg/l edo uretan disolbatzeko mugaz gaindikoak eta nahasketa horren Noec  $> 1$  mg/l: Ez da beharrezkoa sailkatzea kategoria akutua edo kronikoetarako (epe luzera).

Toxikotasun saiakuntzen emaitzak Unitate Toxikoetan (UT) adierazten dira. Unitate horiek mota horretako saiakuntzetan erabiltzen den Equitox/m3 unitatearen balioak dira. Ekotoxikotasun saiakuntzetan lortutako  $C(E)L50$  emaitzak laginaren portzentajearen adierazten dira hasieran.  $U.T.=100/C(E)L50$  (%).

UT bateko (1) toxikotasunak adierazten du organismoen % 50i (hila edo immobilizatua) eragiten diela diluitu gabeko laginak ( % 100ean); 10 UTko balioak adierazten du organismoen % 50i (hila edo immobilizatua) eragiten diela % 10ean diluitutako laginak (1/10). Horrela, honako hau da mg/l-ko kontzentrazioaren eta UTren arteko balio-kidetasuna:

$> 100$ mg/l	$< 1$ U.T.	Ez sailkatua (toxikotasun gutxi)	1. mota: $< 1$ U.T.
100 – 10 mg/l	1 – 10 U.T.	Kaltegarria	2. mota: 1 – 10 U.T.
10 – 1 mg/l	11 – 100 U.T.	Toxikoa	3. mota: 10 – 50 U.T.
$< 1$ mg/l	$> 100$	Oso toxikoa	4. mota: $> 50$ U.T.

Ecofert Sansoain SL eta Desarrollos Medioambientales La Coya SL enpresen laginketan lortutako emaitzak ikusita, hauxe da sailkapena:

	<b>ECOFERT SANSOAIN SL</b>	<b>DESARROLLOS MEDIOAMBIENTALES LA COYA SL</b>
<b>Ekotoxikotasuna U.T.</b>	244 ± 108	57,7 ± 25,5
<b>Ekotoxikotasun tartea U.T.</b>	136 - 352	32,2 – 83,2
<b>Sailkapena</b>	Oso toxikoa	Toxikoa
<b>Arriskugarritasun ezaugarria</b>	HP 14	HP 14
<b>Arrisku adierazpena</b>	H410 Oso toxikoa organismo urtarrentzat, ondorio kaltegarri iraunkorrekin.	H411 Toxikoa organismo urtarrentzat, ondorio kaltegarri iraunkorrekin

Hori dela-eta, 2023ko otsailean Ecofert Sansoain SL enpresaren baltsetan lagindutako likidua HP14 ekotoxikotzat jo zen, eta garai berean Desarrollos Medioambientales La Coya enpresan lagindutakoak ere HP14 ekotoxikoaren sailkapena jaso zuen.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## 11-24/PES-00067. Galdera, lixibiatuen lekualdaketa kudeaketari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak lixibiatuen lekualdaketa kudeaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-24/PES-00067 galdera egin du idatziz, lixibiatuen garraioen kudeaketari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuak Ecofert Sansoain eta Lacoya Medioambiental enpresak kautelaz itxi zituenetik, baltsetako lixibiatuen lekualdatzea MITECOren menpe dagoen baina Nafarroako Gobernuko Departamentuan sartuta dagoen ESIR plataformaren bidez kudeatzea exijitu al da? Hala baldin bada, lixibiatu horien lekualdaketa-erregistroak jaso nahi ditugu.

– Ez da proposatu Desarrollos Medioambientales La Coya SLren instalazioa ixtea.

– Ingurumen zuzendari nagusiaren urtarilaren 23ko 55E/2024 Ebazpen bidez zehapen espediente hasi zaio Ecofert Sansoain SL enpresari, Ingurumenean Eragina duten Jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Legearen aurkako arau-hauste astun baten eta arau-hauste arin baten ustezko erantzule baita; proposatu da 40.000 euroko isuna jartzea; proposatu da Ecofert Sansoain SLren jarduera osorik etetea jarduera horrek ingurumen baimen integratua agindutako

baldintzak betetzen dituela bermatu artean, eta hamabost egun balioduneko epea eman da, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita, alegazioak egiteko edota erantzukizuna aitortzeko borondatez ordaindu gabe, eta dokumentuak nahiz judiziozko beste elementu batzuk aurkezteko ere bai.

– Interesdunak eskatuta, ebazpen horretan emandako epea luzatzea onartu da.

– Gaur egun, Ecofert Sansoain SLk alegazioak aurkeztu ditu Departamentuak emandako Ebazpenaren aurka, eta erantzuteko fasean daude; beraz, instalazio horrek funtzionatzen jarraitzen du.

– Baltsetatik lixibiatuak ateratzen badira, e-SIR plataformaren bidez egiten ahal da, ala ez, azken kudeatzailea Nafarroan badago edo ez badago.

– 2024/02/08an eta 2024/02/20an Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak titularrari informazioa eskatu dio jakiteko ea lixibiatuaren hondakinik kudeatu duen, eta erantzunean adierazi du ez duela lixibiatuaren hondakinik kudeatu.

– Hori dela-eta, ezin da eskatutako informazioa eman.

– Edozelan ere, kudeatzaileak kasuan kasuko tratamendurako kontratuak eta identifikazio dokumentuak izan beharko ditu.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## 11-24/PES-00068. Galdera, Justizia Jauregiko seigarren solairuan sinbologia frankista egoteari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak Justizia Jauregiko seigarren solairuan sinbologia frankista egoteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantza Izurdiaga andreak PES-68 galdera egin du. Hona hemen galdera eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak ba al daki Justizia Jauregiaren seigarren solairuan sinbologia frankista dagoela?

Nafarroako Gobernuak ez zekien sinbologia hori zegoenik. Ekimen parlamentario honen bidez izan dugu horren berri. 2016an ikur frankisten behin-behineko errolda onetsi zen. Horretarako

hainbat txosten eskatu ziren, aukera eman zutenak, toki erakundeek ekarpenekin batera, errolda osatzeko. Bertan ez zen jasota egon galderan hizpide den ikur hori. Behin-behineko errolda horretan adierazten zen errolda irekia zela; izan ere, aurreikusten ahal zen beste ikur batzuk sartzen joatea herritarrek, memoria historikoaren elkarteek, toki erakundeek eta beste agintari batzuek horien berri eman ahala.

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko du sinbologia hori erretiratzeko?

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak legedian eta ikurrak kentzeko programan ezarritako prozedurari jarraituko dio toki erakundetan egiten denarekin bat. Hori dela-eta, komunikazio bat bidali zaio espazioko titular eskudunari (kasu honetan, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentua), ikurra memoria historikoaren esparruko legediaren kontrakoa dela egiaztatuz gero ken dezan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26n

Bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

## **11-24/PES-00069. Galdera, Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazioaren instalazio berriei buruzkoa**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazioaren instalazio berriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00069):

• Zer instalazio berri darabilzue gogoan Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazioa bertan paratzeko?

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozial eta Ekonomiko eta Enpleguaren kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Desgaitasuna duten Pertsonen Laguntza Emateko Nafarroako Fundazio Publikoaren egoitza izanen diren instalazio berriak Navas de Tolosa kaleko 27-29. zenbakietan daude. Elkarren artean lotutako bi lokal dira, eta irteera dute, baita ere, Padre Moret kalera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Eskubide Sozial eta Ekonomiko eta Enpleguaren kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## 11-24/PES-00070. Galdera, merkatu-erreserbaren eta erreserbatutako kontratuaren betetze-maila dela-eta jasotako datuei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porrás jaunak merkatu-erreserbaren eta erreserbatutako kontratuaren betetze-maila dela-eta jasotako datuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 16ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás jaunak 11-24/PES-00070 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako honi buruz:

1. Nafarroako Gobernuaren zein unitate administratibok biltzen ditu Nafarroan merkatu-erreserbaren eta erreserbatutako kontratuaren betetze-mailari buruzko datuak?

2. Zer datu ditu Nafarroako Gobernuak azken urteetan merkatu-erreserbaren eta erreserbatutako kontratuaren betetzeak Nafarroan izan duen bilakaerari buruz?

3. Nafarroako Gobernuaren ustez, zein faktorek dute eragina bilakaera horretan?

4. Zer estrategia garatzen ari da Nafarroako Gobernu horien betetzea errazte aldera? Zer estrategia aplikatuko ditu Nafarroako Gobernuak epe motzean eta ertainean horien betetzea errazte aldera?

Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

1) Nafarroako Gobernuaren zein unitate administratibok biltzen ditu Nafarroan merkatu-erreserbaren eta erreserbatutako kontratuaren betetze-mailari buruzko datuak?

Nafarroako Gobernuaren barruan Ekonomia Sozialeko eta Laneko Zuzendaritza Nagusiak hartzen ditu bere gain Erreserbaren sustapena eta jarraipena egiteko zereginak. Sortutako egitura berriak honako hau hartzen du bere gain Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuaren egitura organikoa ezartzen

duen azaroaren 15eko 251/2023 Foru Dekretuko 26. artikuluko h) apartatuan: Enplegu Babestuaren Batzordea bultzatzea, Nafarroako Kontratuaren Legean ezarritako % 6ko erreserba betetzeko.

Horrela jarraipena ematen zaie Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Enpleguan Laguntzako Zerbitzuaren eta Enpresentzako Zerbitzuen bidez egin izan dituen sustapeneko eta koordinazio zereginari; egoera hori agerian jarri zen Enplegu Babestuaren Batzordeak 2023ko abenduaren 13an izandako saioan. Horrenbestez, zereginak aurreko etapari jarraitutasuna emateko egiten dira, egiten diren ekintzen eta metodologiaren behar bezalako koordinazioa egon dadin helburu guztiak egokiro bete ahal izateko.

2) Zer datu ditu Nafarroako Gobernuak azken urteetan merkatu-erreserbaren eta erreserbatutako kontratuaren betetzeak Nafarroan izan duen bilakaerari buruz?

Nafarroako Gobernuak metodologia eraginkorra du kontratuaren erreserbaren bilakaera islatzen duten adierazleen bilakaeraren jarraipen kuantitatiboa eta kualitatiboa egiteko. Metodologia hori urteko zenbait txostenetan jasotzen da, eta txosten horien datuak, egindako lanari buruzkoak, Enplegu Babestuaren Batzordean partekatu, analizatu eta azaltzen dira, horrez gain, datu esanguratsuagoak ere badaude, analizatu eta eztabaidatzen direnak honako hauek parte hartzen duten foro batean:

Eskubide Sozialerako Kontseilaritza (Carmen Maeztu kontseilaria da presidentea); Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Zuzendaritza Kudeatzailea (Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren Zuzendaritza da presidenteordea); Aurrekontuen eta Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren Zuzendaritza Nagusia; NEKP; Enplegu Zentro Berezien irabazi asmorik gabeko Nafarroako Elkarte (CEISNA); Nafarroako Gizarteratzeko Enpresen Elkarte (EINA); Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Enplegua Sustatzeko eta Enpresentzako Zerbitzuetarako Zerbitzuaren Zuzendaritza (idazkaria da).

2023ko emaitzen txostenak, 2022ko erreserbaren garapenari buruzkoak, adierazten du 2022an 2021ean baino erreserba tasa txikiagoa izan zela, Nafarroako Gobernuak kontratazio publikoaren igoera orokor handia izan duen tes-



tinguru batean erreserbatutako kontratazioaren arloan esleitutako zenbatekoa nolabait murriztu delako.

2021ean 193 milioi esleitu ziren, eta 2022an, berriz, 273 milioi. Hori horrela, 2022an esleitutako guttizkoaren gaineko 2021eko tasa % 1,38koa da; aldiz, 2022an % 0,90ekoa da; bestalde, tasa ere txikiagoa da aurreko urtean (2021) esleitutako guttizkoaren aldean; izan ere, 2021ean % 1,49koa izan zen (2020an esleitua) baina 2022an % 1,28ra iritsi da.

2022an, 2.466.815,92 euro erreserbatu ziren; 2021ean, berriz, 2.681.533,76 euro.

3) Nafarroako Gobernuaren ustez, zein faktorek dute eragina bilakaera horretan?

Kontratazio publikoaren alorra konplexua da, eta egiturazko zein koiunturazko arrazoien menpe egoten da; izan ere, alde batetik, kontratazio erreserbatuaren ezagutza eta erabilera gero eta "normalizatuagoak" bultzatzen jarraitu behar dugu (36. artikulua), laneratzeko enpresek eta enplegu zentro bereziek ematen dituzten zerbitzuak ezagutzeari eta dibertsifikatzeari dagokionez, eta, bestetik, kontratazio erreserbatuaren bilakaera konparatiboak agerian uzten ditu departamentuen arteko aldeak (eginkizunak, zerbitzuak eta aurrekontuak), horien barne logika, behar diren zerbitzuen aldi baterako premia edota lanpostu espezifikotako mugikortasun profesionala.

Hori dela-eta, emaitzak baloratzerakoan, administrazio publikoaren (Nafarroako Gobernu) testuinguru konplexuaren eta kontratazio prozeduren barruan kokatu behar gara, Kontratu Publikoen 2/2018 Foru Legean jasoa.

Metodologiari dagokionez, ad hoc egindako hainbat adierazletan oinarrituta sortutako datuak biltzen dira urtero, Laneratzeko Enpresei (EI) eta Enplegu Zentro Bereziei (EZB) egindako kontratazioaren eta erreserbaren bilakaera deskribatzeko, eskuragarri dauden datuen iturri jarraikiz:

- Kontratazio Ataria: Nafarroako Gobernu departamentuek eta sozietate publikoek KPFLren 36. artikuluari jarraikiz egindako lizitazioak.

- Kontratazio Ataria: Nafarroako Gobernu departamentuek eta sozietate publikoek egindako kontratu txikien hiru hilean behingo argitalpena.

- SAP – Nafarroako Gobernu: gizarte ekimeneko edota irabazi asmorik gabeko enplegu zentro bereziek eta laneratzeko enpresek igorritako fakturak.

Horrela, funtsezko bi datu lortzen ditugu:

i) Nafarroako Gobernuak 36. artikulua bidez laneratzeko enpresei eta enplegu zentro bereziei kasuan kasuko urtean adjudikatutako kontratuen zenbatekoa.

ii) laneratzeko enpresa eta enplegu zentro berezietarako kontratu txikien bidez kontratatutako zerbitzuen zenbatekoa.

Zenbateko bien baturak betetze tasak kalkulatzeko adjudikatutako kopuru osoa osatzen du. Informazio hori euskarri informatiko eta estatistikoaren bidez aztertzen da, adierazle kualitatiboak eta faktore anitzeko konparazio taulak errazago egiteko.

Informazio hori ad hoc osatzen da Nafarroako Gobernu departamentu bakoitzerako, eta adierazle bereziak ditu, azterketa espezifikotako egiteko aukera ematen dutenak.

Horrela, enplegu zentro berezi eta laneratzeko enpresekin partekatze informazio zehatza dugu, eta horien azterketa xehatuak jarraitu beharreko estrategia definitzeko kontuan hartu beharreko hainbat faktore eskaintzen dizkigu:

- Administrazioak kontratuen erreserbari buruz duen ezagutza-maila eta -gradua. Departamentuen egitura orokorretan izandako aldaketek zaildu egiten dute plangintza integrala egitea eta kontratuen erreserbari buruzko kultura sortzea.

- Administrazioen baliabide maila, bereziki toki erakundeena eta enpresa publikoena, eta kontratazio publikoan espezializatutako figuren presentzia.

- Kontratazio pleguen definizio maila eta eske ma komuna, departamentu bakoitzeko barne prozedurak arinak eta errazak izan daitezen, funtsezkoak baitira kontratazioetan klausula sozialak txertatzeko.

- Enplegu zentro berezi eta laneratzeko enpresetako zerbitzu eta produktuen ezagutza- eta komunikazio-maila administrazio publikoetan, kontratazioaren unean eskuragarri dagoen eskaintza areagotzeko eta, beraz, kontratuen erreserba handitzeko.

- Gobernu departamentu bakoitzean kontratazioa planifikatzeko ardura duten pertsonak identifikatzea, laguntza mekanismoak eta aholkularitza mekanismoak ezartzeko, kontratuen erreserba gauza dadila errazteko.

- Sentsibilizaziorako hedapen- eta komunikazio-maila, bai administrazio osoan, bai gizarte erakundeetan eta interes taldeetan.

4) Zer estrategia garatzen ari da Nafarroako Gobernu horien betetzea errazte aldera? Zer estrategia aplikatuko ditu Nafarroako Gobernuak epe motzean eta ertainean horien betetzea errazte aldera?

Nafarroako Gobernu horien sustapen estrategia bat ezartzen ari da, aurreko puntuan identifikatutako faktoreen gainean jardutean oinarritua. Faktore horiek palanka dira erreserba tasetan funtsezko aldaketa eragiteko, eta zenbait helburutan definitzen dira:

– Nafarroako Gobernuaren posizionamendu diferentziala lortzea Kontratuen Erreserbaren garapenean, Europako enplegu politika aktiboaren parte gisa, Agenda 2030en esparruan.

– Jarraipen espezifikoak egiten jarraitzea hainbat adierazleren bidez, eta Nafarroako Gobernuak eta haren sozietate publikoek erreserbatutako erosketa publikoaren plangintzan aurrera egitea.

– Tokiko erakundeak eta beste eragile batzuk dinamizatzea eta haiei laguntzea, Kontratuen Erreserbaren eta hari lotutako sektorearen ezagutza sustatzeko.

Kontratuen erreserbako strategiaren plangintzak zeharkako izaera izan behar du, politikoa, teknikoa eta sektoriala, dagozkion lan esparruak oinarri izan dituen, kudeaketa eremu guztietan aplikatu daitekeen prozedura simple baten bidez, eragile guztiek parte har dezaten erronkak ebazten eta kontratuen erreserban aurrera egitea zailtzen duten faktoreak murrizten. Estrategia hori hainbat fasetan garatuko da, adostasun politikoa, teknikoa eta sektoriala lortzeko lan prozedura definituko duen dokumentu operatibo bat egin eta aurkeztetik abiatuta.

Prozedura horretatik abiatuta, administrazioaren unitate bakoitzean kontratuen plangintzan giltzarri diren pertsonak identifikatuko dira, eta horrek aukera emanen du pertsona horiei zuzenean jarraipena eta aholkularitza eman eta zalantzak argitzeko, pleguak egiten eta erreserbaren urteko plangintza egiten laguntzeko.

Fase horrek Ekonomia Sozialeko eta Laneko Zuzendaritza Nagusiaren zuzeneko laguntza izanen du, eta horrek euskarria eta aholkularitza emanen die kontratazioa kudeatzen duten organoei, bai eta zenbaketarako software tresna bat ere, adierazleen eta kontratuen formulazioaren jarraipen hobea egiteko.

Hurrengo fasean, barne komunikazioak bidaltzea eta baterako lan saioak nahiz tailerrak egitea

aurreikusten da, eta, azken batean, etorkizuneko kontratazio aukerak identifikatzeko prozedura bateratzea, etorkizuneko kontratu erreserbatuak aztertzea eta horiek diseinatzeko etengabeko laguntza ematea.

Azkenik, sentsibilizazio- eta hedapen-faktorean jarduteko beharra identifikatu dugunez, finkatutako lan hori behar bezala helaraziko zaie administrazio publiko guztiei eta sektoreari, metodologia eta prozedura koordinatu horren ezagutza eta garapena errazte aldera. Horretarako tresnak honako hauek izaten ahal dira: emaitzak aurkezteko komunikazio ekintzak, jardunbide egokiak identifikatzea, plangintzak eta prozedurak ezagutzea, eta abar.

Estrategia integral eta multieragile hori Ekonomia Sozialeko eta Laneko Zuzendaritza Nagusiaren bidez bultzatuko da, neurri horien ekintza politikoan eragina izan dezan eta identifikatutako metodologia, ekintzak, emaitzak eta premiak transmititzeko balio dezan.

Era berean, Enplegu Babestuaren Batzordea aktibatu nahi da, jarraipen bilera gehiago izan ditzan, sektorearekin partekatze eta eragile guztien artean askotariko fase eta jardueratan laguntzeko.

Kontratuen erreserba garatzeko, funtsezkoa da neurri berritzaileak txertatzea eta erakundearen artean gobernantza- eta kudeaketa-mekanismoak garatzen dituzten gizarte berrikuntzako jarduerak sustatzea. Horretarako, beste deialdi bat antolatu da 2024an, Ekonomia Sozialeko eta Laneko Zuzendaritzak kudeatua, sektoreko erakundeek bultzatu behar duten garapen horretan laguntzeko, ekonomia sozialaren esparruan lankidetzat indartuta.

Prozedura definitzeko eta eragileak koordinatzeko lehenengo faseak 2024an garatuko dira, 2025ean Kontratu Erreserbako Plangintzaren prozedura izateko xedez, eta, horrenbestez, jarraipen xehatua egiteko, Enplegu Babestuaren Batzordean emaitzak ebaluatuta eta komunikazio-nahiz sentsibilizazio-jarduerak antolatuta, nola barnekoak hala kanpokoak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 6an

Esकुbide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **11-24/PES-00071. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko obren aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten enpresen kontabilitate-betebeharrei buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak Belateko tunelak bikoizteko obren aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten enpresen kontabilitate-betebeharrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 16ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Belateko tunelak bikoizteko obren adjudikaziodun izan den ABEEa osatzen duten enpresen kontabilitateko betebeharrei buruz (11-24/PES-00071). Hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak horri buruz ematen dion erantzuna:

Kontratua lizitzatzeko espedientean dauden aktetan jasotakoaren arabera (Nafarroako Kontratazio Atarian daude eskuragarri), Acciona Construcción SA/Excavaciones Fermín Osés SL/Servinabar 2000 SL enpresek kontratuaren baldintza berezietako 13. klausulan jasotako izapideari buruz aurkeztutako dokumentazioa aztertu zuen kontratazio mahaiak, bertan jasota baitago adjudikaziodun gisa proposatuak izanen diren erakundeek bete beharreko betekizunak, eta azterketa horren emaitza aktetan dago jasota.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babeste-ko legedian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko da emandako edukia, eta betebeharra egonen da Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

## 11-24/PES-00072. Galdera, Nafarroako Aratxea Adierazpen Geografiko Babestuko behi-haragia sustatze aldera abiarazitako kanpainari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Nafarroako Aratxea Adierazpen Geografiko Babestuko behi-haragia sustatze aldera abiarazitako kanpainari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 16ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-24/PES-00072 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Nafarroako Aratxea deritzon adierazpen geografiko babestua sustatzeko ekintzei buruz. Hona hemen Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Nafarroako Gobernuak planteatu al du Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak hasitakoaren antzeko kanpainarik egitea "Nafarroako Aratxea" adierazpen geografiko babestuko behi-haragiaren kontsumoa sustatze aldera?

Nafarroako Aratxearen AGBa gaur egun hiru bidetatik laguntzen du Nafarroako Gobernuak:

– zuzeneko dirulaguntzak Kontseilu Arauemai-leak egindako sustapen ekintzetarako. Azken hiru ekitaldietan urteko batez besteko zenbatekoa 54.226,55 eurokoa izan da.

– laguntzak kontrolerako eta ziurtapenerako eta Kontseiluaren idazkaritza teknikorako. Urtean 66.000 eurorekin laguntzen da, eta 2024rako aurreikusten da 100.000 eurora areagotzea.

– INTIAk egindako eta Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak Reyno Gourmet sustatzearen bidez finantzaturako sustapen ekin-tza berariazkoak; 2023an 25.000 euro inguru gas-

tatu ziren, Nafarroako Txahalarentzat eta Nafarroako Arkumearentzat batera.

Nafarroan, gaur egun, ez daukagu abian Eusko Jaurlaritzaren sistemaren pareko bonu-sistema bat, AGB behi-okela erostea sustatzeko, baina Nafarroako Landa Garapenerako Foru Lege berrian interesgarritzat jo den elementuetako bat da. Bertan, tokiko produktuen eta beste abeltzaintzako ekoizpen batzuetara (arkumea, esaterako) irekitako kalitateko produktuen kontsumoa sustatzeaz hitz eginen litzateke.

Beharrezko balorazio ekonomikoaz gain, oso garrantzitsua da, ikuspuntu juridikotik, laguntza horien bideragarritasuna eta ezarpena aztertzea, hainbat parametro kontuan hartuta: laguntzen mugak, errentak, produktuak, hartzaileak eta abar.

2. Zer kostu izan lezake Nafarroan "Bonokela" ekimenaren antzeko kanpaina bat egiteak?

Eusko Jaurlaritzak abian jarri duenaren antzeko kanpaina bat Nafarroan jartzearen kostuak, lurralde bateko eta besteko biztanleria eta Eusko Jaurlaritzaren kanpainaren baliabideak kontuan hartuta, 610.000 euroko aurrekontu zuzkidura beharko luke, gutxi gorabehera.

3. Nafarroako Aratxea Adierazpen Geografiko Babestuaren aldetik eskaerarik jaso al da Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak abiatu duen antzeko ekimen bat abian jartzea aztertzeko?

Nafarroako Aratxea AGBrekin izandako bilere-tan kalitatezko eta hurbileko produktuak sustatzeko formulak planteatu dira, bai hedapenari, komunikazioari, bai balio erantsiari eta gizarte erantzukizunari dagokienez. Orain arte ez da proposamen zehatzik jaso.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parla-mentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kon-seilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## 11-24/PES-00073. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren organigraman Zainketen Zuzendaritza sartzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren organigraman Zainketen Zuzendaritza sartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 16ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak 11-24/PES-00073 galdera egin du, idatziz erantzun dakion Hona galdera eta

Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Osasun Departamentuak zer aurreikuspen darabil Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren organigraman Zainketen Zuzendaritza sartzeari dagokionez? Zuzendaritza hori sartzea aurreikusten al du, zer toki zehatz hartuko luke organigraman, zer eginkizun izanen lituzke eta noiz jarriko litzateke abian?

Une honetan jakinarazten da ez dela aurreikusten Zainketa Sanitarioen Zuzendaritza bat O-NOZen organigraman sartzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 20an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## 11-24/PES-00074. Galdera, Euskarabidean euskara ikasteko baimenei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Euskarabidean euskara ikasteko baimenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 16ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

#### Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-24-PES-00074 informazio eskaerari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hezkuntza Laguntzako espezialistek dagokienez, Hezkuntza Departamentuan honako informazio hau dago euskara ikasteko eskatu diren baimenei buruz:

- Lau lizentzia ordaindu ikastaro trinkoetarako, gaztelaniazko plazak dituzten Hezkuntza Laguntzako espezialistek eskatuta. Eskaerak A1 eta A2 mailak egiteko izan dira.

- Lizentzia ordaindu bat ikastaro trinkoa egiteko, euskarazko plaza duen Hezkuntza Laguntzako espezialista batek eskatuta. Eskaera C1 maila egiteko izan da.

Eskaera guztiak ezetsi egin dira kontuan hartuta 11/2009 Foru Dekretuak 8. artikuluko 2b puntuan ezartzen duena:

2. Lanbide prestakuntzako eta hobekuntzako ikastaroetara joateko (hala Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak nola beste erakunde nahiz entitate publikoek antolatutako), baimen ordainduak emanen dira, baina gehienez ere berrogeita hamar ordu urtean, honako irizpide hauei jarraikiz:

b) Prestakuntza ikastaroko edukiek langileak duen lanpostuarekin edo lanbide karrerarekin duen lotura.

Euskarazko plaza zuen espezialistak bazuen posturako euskara eskakizuna, B2 maila, alegia.

Gaztelaniazko plazak zituzten espezialistentzat euskara ez da lanposturako eskakizun.

Honako hau da baimen horiek espezialista horiei emateko eta ukatzeko erreferentziazko araudia:

103/2017 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, euskararen erabilera arautzen duena Nafarroako Administrazio Publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan

22. artikulua. Euskararen ezagutza maila.

1. Ele biko lanpostuetan egiaztatu beharreko euskararen ezagutza-maila B1, B2 edo C1 izanen da, lanpostuaren ezaugarrien arabera. Maila horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan ezarritakoak dira.

11/2009 Foru Dekretua, otsailaren 9koa, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onesten duena

8. artikulua. Lizentzia ordaindua, prestakuntza jarduerak egiteko

2. Lanbide prestakuntzako eta hobekuntzako ikastaroetara joateko (hala Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak nola beste erakunde nahiz entitate publikoek antolatutako), baimen ordainduak emanen dira, baina gehienez ere berrogeita hamar ordu urtean, honako irizpide hauei jarraikiz:

a) Zerbitzuaren beharrak.

b) Prestakuntza ikastaroko edukiek langileak duen lanpostuarekin edo lanbide karrerarekin duen lotura.

c) Nolabaiteko oreka mantendu beharra kasuko unitateko langileen artean prestakuntza ikastaroak hartzeari dagokionez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

**Osasun kontseilariaren erantzuna**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Euskara-

bidean euskara ikasteko baimenei buruz (11-24/PES-00074). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

**NOPLOI Euskara ikastaroetarako eskaerak 2019-2023**

	Eskatutako maila	Ikastaro mota	Eskaerak	Baimendua	Ukatuta	Ukatzeko arrazoia
<b>2019</b>			<b>9</b>	<b>8</b>	<b>1</b>	
	A.1	Estentsiboa	1	1	0	
	A.1.1	Trinkoa	2	2	0	
	A.1.1	Tutoretzapekoa	1	1	0	
	B.1	Trinkoa	1	0	1	Zerbitzuaren premiak direla-eta
	B.2	Trinkoa	1	1	0	
	B.2	Estentsiboa	2	2	0	
	C.1	Estentsiboa	1	1	0	
<b>2020</b>			<b>11</b>	<b>11</b>	<b>0</b>	
	A.1.1	Trinkoa	4	4	0	
	A.1.1	Estentsiboa	3	3	0	
	A.1.1	Autoikaskuntza	1	1	0	
	B.1	Trinkoa	2	2	0	
	C.1	Estentsiboa	1	1	0	
<b>2021</b>			<b>7</b>	<b>7</b>	<b>0</b>	
	A.1	Estentsiboa	2	2	0	
	A.1.1	Trinkoa	1	1	0	
	B.1	Trinkoa	2	2	0	
	B.2	Autoikaskuntza	1	1	0	
	C.1	Trinkoa	1	1	0	
<b>2022</b>			<b>10</b>	<b>10</b>	<b>0</b>	
	A.1.1	Trinkoa	2	2	0	
	A.1.1	Autoikaskuntza	1	1	0	
	A.2	Estentsiboa	1	1	0	
	B.1	Trinkoa	1	1	0	
	B.2	Estentsiboa	3	3	0	
	B.2.2	Estentsiboa	1	1	0	
	C.1	Trinkoa	1	1	0	
<b>2023</b>			<b>10</b>	<b>10</b>	<b>0</b>	
	A.1.1	Trinkoa	3	3	0	
	A.1.2	Trinkoa	1	1	0	
	A.1.2	Estentsiboa	1	1	0	
	A.2	Trinkoa	1	1	0	
	B.1	Estentsiboa	1	1	0	
	B.2.2	Trinkoa	2	2	0	
	C.1	Autoikaskuntza	1	1	0	
		<b>GUZTIRA</b>	<b>47</b>	<b>46</b>	<b>1</b>	

NOPLOI euskara ikastaroak. 2019ko eskaerei lehentasuna emateko irizpideak

1. Eremu euskaldunean lan egitea edota herri-tarrei zuzeneko arreta ematea.

2. Maila batean matrikulatuta egondako aldi kopurua (2 aldiz trinkoetan, behin estentsiboetan).

3. Ordezkapena egiteko premia.

4. Plazan jarraitzea.

5. Ikastaroa aprobetxatzeko eta hizkuntza-trebakuntzan jarraitzeko aukera.

6. Oreka NOPLOIko askotariko unitate organiko-koen artean.

7. Zerbitzuaren premiak

Beste irizpide batzuk:

Ikastaro bi aldi berean ez egitea.

Gehienez ere ikastaro trinko/estentsibo bat urtean. Autoikaskuntzako ikastaro bat egiten ahal-ko da ikastaro trinko/estentsibo baten jarraian, baina biak ezin dira aldi berean egin. Urtetzat jo-tzen dugu ikasturtea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Par-lamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 22an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

### **Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxiki-tako foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak 11-24/PES-00074 galdera egin du, idatziz eran-tzun dakion, honako honi buruz:

Hiru kidego hauetan, zenbat langilek eskatu dute Euskarabidean euskara ikasteko baimena? Zenbati eman zaie euskara ikasteko baimena? Zein ikastaro mota egin dute, eta zein mailatan? Zenbati ukatu zaie? Ukatu zaien langileen kasuan, zein izan dira, zehatz-mehatz eta banaka-banaka, ukatzeko eman diren arrazoiak? Zein dira klasee-tara joateko baimena onartzeko edo ukatzeko iriz-pideak? Non daude jasoak? Azken 5 urteotako datuak eskatzen ditut.

– Hezkuntza Laguntzako Espezialistak

– Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia

– Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozia-letako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kon-seilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren menpeko zentroetan honako eskaera hauek daude jasota euskara ikas-taroak egiteko:

• El Vergel egoitza:

– 2023. urtea: 2 eskaera

– 1 baimendu da:

• Trinkoa. 2023-10-31tik 2023-11-28ra bitarte. B1 maila

– 1 ukatu da:

• Trinkoa. 2023-10-31tik 2023-11-28ra bitarte. A.1.2 maila

– 2024. urtea: 5 eskaera

– 5 ukatu dira:

• Trinko bat. 2024-05-13tik 2024-06-07ra bitar-te. A2 maila

• Trinko bat. 2024-02-12tik 2024-03-08ra bitar-te. B2.1 maila

• Trinko bat. 2024-02-12tik 2024-03-08ra bitar-te. A1.1 maila

• Trinko bat. 2024-04-08tik 2024-05-06ra bitar-te. C1 maila

• Trinko bat. 2024-04-08tik 2024-05-06ra bitar-te. A1.2 maila

• Desgaitasuna baloratzeko zentroa:

– 2023. urtea: Eskaera bat.

– 1 baimendu da:

• Estentsibo bat 2023-09-04tik 2024-05-30era bitarte. B2 maila

– 2024. urtea: Eskaera bat.

– 1 ukatu da:

• Trinko bat. 2024-01-08tik 2024-02-02ra bitar-te. B1 maila

Eskaerak ukatu dira ekainaren 21eko 195/1993 Foru Dekretuaren 2. artikuluan ezarritako irizpide-ei jarraikiz. Dekretu horren bidez eguneratu egiten dira Nafarroako Foru Komunitatearen administra-zioan eta horren mendeko erakunde autonomoetan lan egiten duten langileek euskara ikastaroak egiteko orduen konpentsazioak eta konpentsazio ekonomikoak. Zehazki, kasu horietan, zerbit-zuaren premien ondoriozko mugaketetarako eta ordezkapenetarako aurrekontuko kontsignatzeak.



Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 12an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu  
Villafranca

---

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**15/24 Ebazpena, apirilaren 25ekoa, Nafarroako Arartekoak emana, urtebeteko prestakuntza-beka baten deialdirako oinarriak onesten dituen, euskararen ezagutzaren baldintzarekin, Zuzenbideko gradua dutenentzat, Nafarroako Arartekoan aritzeko**

Nafarroako Arartekoa instituzio publikoa da, herritarren eskubideak eta askatasun publikoak babesten eta hobetzen ditu eta Nafarroako administrazio publikoen jarduera gainbegiratzen du. Hori horrela, Nafarroako Arartekoak uste du Zuzenbideko unibertsitate-titulua duten pertsonen prestakuntza sustatu behar dela, zuzenago eza-gutu ditzaten Nafarroako Arartekoaren lan egiteko modua eta jarduerak, batez ere modu praktikoa, herritarrekiko harremanarekin zerikusia duten funtzioekin eta tutore baten ikuspegiaren eta irizpideen arabera arituta, tutore horrek orientazioa, laguntza, prestakuntza hobea eta gidaritza eman-go baitizkie erakundean dauden bitartean.

Horretarako, erabaki da Nafarroako Arartekoan aritzeko, euskararen ezagutzaren baldintzarekin, Zuzenbideko gradua dutenentzat prestakuntza-bekaren deialdiko oinarriak onartzea.

Deialdiak bete egiten ditu bai oinarri arautzaile hauek bai Nafarroako Arartekoaren araudiak agintzen duena ere.

Horren ondorioz, 2005eko azaroaren 21ean Nafarroako Legebiltzarreko Mahaiak onartutako Nafarroako Foru Komunitatearen Arartekoaren Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Araudiak ematen dizkidan eskumenak erabilita, honako hau

**EBAZTEN DUT:**

**1. Urtebeteko prestakuntza-beka baten deialdia onestea, euskararen ezagupenaren baldintzarekin eta Zuzenbideko gradua dutenentzat, Nafarroako Arartekoan aritzeko.**

Eranskinean agertzen diren oinarriek arautzen dute deialdi hau.

**2. Deialdia argitaratzea Nafarroako Parlamentuaren Aldizkaria Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta instituzioko gunee digitallean ([www.defensornavarra.es](http://www.defensornavarra.es)).**

Iruña, 2024ko apirilaren 25a

Nafarroako Arartekoa: Patxi Vera Donazar

**ERANSKINA**

**Urtebeteko prestakuntza-beka baten deialdirako, euskararen ezagutzaren baldintzarekin, oinarriak onesten dituen, Zuzenbideko gradua dutenentzat, Nafarroako Arartekoan aritzeko**

**1. oinarria. Xedea.**

1.1. Deialdiaren xedea da, euskararen ezagutzaren baldintzarekin, Zuzenbideko gradua duten pertsonentzako prestakuntza-beka bat ematea, lehiaketa bidez, Nafarroako Arartekoan aritzeko.

1.2. Deialdiaren helburua da Zuzenbideko gradua dutenentzat prestakuntza juridikoa bultzatzea, instituzioan herritarren eskubideak babesteko eta hobetzeko egiten diren jarduerak zuzenean eza-gutu ditzaten.

1.3. Euskararen ezagutza baldintza espezifikoa da lehiaketan parte hartu ahal izateko. Baldintza horren justifikazioa da beharrezkoa dela erakundeari Nafarroako hizkuntza propio horretan zuzentzen zaizkion pertsonekin harremanak izan ahal izateko.

**2. oinarria. Iraupena.**

2.1. Bekak hamabi hilabete iraungo du, eta aukeratze prozesua bukatzerakoan espero da bere hasiera, behar diren tramiteak bete ondoren.

2.2. Beka ezin da luzatu.

**3. oinarria.** Bekaren zenbatekoa eta ordainketa.

3.1. Bekak 1.050 euroko zenbateko gordina izango du hilean, edo dagokion zati proporzionala, hala behar bada. Bekadunari dagokion Gizarte Segurantzaren kuota deskontatuko zaio. Diru-kopuru horri pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari dagokion atxikipena egingo zaio, indarra duten arabei jarraikiz hala egin behar baldin bada.

3.2. Bekaren onuradunaren araubidea besteren konturako langileenaren parekoa izango da Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartzearen ondorioetarako, urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuan ezarri bezala; dekretu horrek prestakuntza-programetan parte hartzen dutenak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean nola eta zein baldintzatan sartzaren diren arautzen du, Gizarte Segurantzaren sistema eguneratu, egokitu eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa garatuz.

3.3. Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartzeko, bertan kidezeko eta/edo alta hartzeko, eta araubide horretatik ateratzeko ere, kontuan hartuko da pertsona onuraduna noiz hasten den prestakuntza-programan eta noiz uzten duen, Enpresak Gizarte Segurantzaren inskribatzeko eta langileak kidezeko, alta eta bajak hartzeko eta haien datuak aldatzeko Erregelamendu Orokorrean ezarritako modu, epe eta ondorioekin. Urtarrilaren 26ko 84/1996 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori.

3.4. Onuradunari ematen zaion dirua ez da inolaz ere soldata edo lansaritzat hartuko, laguntza ekonomiko publikotzat baizik.

**4. oinarria.** Bateriaezintasunak.

Prestakuntza-beka bateraezina izango da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak emandako bekekin, bai eta beste administrazio, instituzio edo entitate publiko zein pribatu batzuek edo partikularrek emandako bekekin ere, instituzioak aurkakoa adierazi ezean.

**5. oinarria.** Izangaiek bete behar dituzten baldintzak.

5.1. Dokumentazioa aurkezteko epea bukatzen den egunean baldintza guzti hauek betetzen dituzten pertsona fisikoak soilik izan daitezke onuradunak:

a) Adinez nagusia izatea.

b) Espainiako nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako Estatuak

berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzen duen estaturen batekoa izatea. Nolanahi ere, Espainiako nazionalitatea ez duenak gaztelaniaz behar adina badakiela frogatu beharko du.

c) Zuzenbideko graduaren unibertsitate-titulu ofiziala izatea, Espainiako agintariak emana edo homologatua, eta deialdi hau argitaratu baino lehenagoko hiru urtean lortu izana. Zuzenbideko graduaren baliokidea izango da Zuzenbideko eta beste zientzietako gradu bikoitza.

d) Bizitokia Nafarroan izatea, deialdia argitaratu baino urte bat lehenagotik gutxienez.

e) Jarduteko gaitasun osoa izatea, eta ez izatea bekaren xede den prestakuntza-jardueran aritzea galaraz diezaiokeen desgaitasun fisikorik edo gaixotasunik.

f) Euskarako B2 maila edo maila baliokidea izatea.

g) Zerga guztien ordainketak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela frogatzea, eta ez kobratzea administrazio edo entitate publiko edo pribatu batetik helburu bera duen beste edozein laguntza publiko bateraezinek.

5.2. Baldintza horiek guztiak bekaldi osoan bete beharko dira.

**6. oinarria.** Baloratzeko baremoa.

Baremo honi jarraituz baloratuko dira eskabiak:

a) Ikasketa-espeditentea: Gehienez ere 10 puntu.

Espeditentearen batez besteko nota baloratuko da dagokion Unibertsitateak emandako puntuazioaren arabera.

Ez dira baloratuko 6 puntutik beherako batez bestekoa duten espeditenteak (10 puntuko eskalan).

b) Bestelako unibertsitate-titulu ofizialak:

Zuzenbideko gradua ez den bestelako unibertsitate-titulu ofizialik izanez gero, Espainiako agintariak emana edo homologatua, puntu bat emango da titulu bakoitzeko.

Graduaz bestelako unibertsitate-tituluak izateagatik, hala nola masterra edo doktoretza, 0,5 puntu emango da titulu bakoitzeko.

c) Zuzenbide publikoari lotutako ikasgai edo arlo hauetan lortutako kalifikazioek: gehienez ere 10 puntu.

– Konstituzio-zuzenbidea.

- Zuzenbidearen iturriak.
- Oinarrizko eskubideak.
- Estatuaren antolaketa.
- Administrazio-zuzenbidea, zati orokorra.
- Administrazio-zuzenbidea, zati berezia.
- Nafarroako zuzenbide publikoa.

d) Hizkuntzen ezagutza.

Ikastetxe publikoek emandako ziurtagiriak edo titulu ofizialak soilik baloratuko dira.

Hizkuntza eskola ofizial batek emandako gaitasun-agiria edo titulua edo ofizialki baliokidea den titulua edukiz gero, gehienez ere 1 puntu hizkuntza bakoitzarengatik; baremo honen arabera:

HEOko maila	Ziurtagiria	Puntuak
1. eta 2. maila	A1 eta A2	0
3. maila	B1	0,40
4. maila	B2	0,70
5. maila	C1	1,00

Hizkuntza eskola ofizialetatik kanpoko ikastetxeetan egindako ikasketen kasuan, berriaz aipatu beharko da egindako ikasketak zein ziurtagiriaren baliokideak diren, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren gomendioei jarraikiz.

Euskarari dagokionez, ez da B2 maila baloratuko, ezta maila txikiagorik ere. C1 edo maila baliokidea 0,5 punturekin baloratuko da eta C2 maila 1 punturekin.

e) Elkarrizketa pertsonala: gehienez ere 10 puntu.

Puntu gehien lortu dituzten hiru pertsonaiekin egingo zaie elkarrizketa. Ebaluazio Batzordeko kide batek egingo ditu elkarrizketak.

Baloraziorako honako hauek hartuko dira kontuan: motibazioa; ekimena; erantzunen argitasuna eta ordena; gaiak beren artean lotzeko gaitasuna; jendea hartzen jarduteko, talde-lanerako eta gizarte-harremanetarako gaitasunak; eta beste gaitasun sozial edo intelektual batzuk.

Beka eskatzaileei posta elektronikoz egingo zaie dei, gutxienez ere 48 ordu lehenago. Elkarrizketa egitea nahitaezkoa da, eta hautapen prozesutik baztertu egingo da agertzen ez dena; hala koetan, puntuazio handiena duen hurrengoari deituko zaio.

Era berean, hiru hautagaietako bakoitzarekin solasaldi bat egingo da euskaraz, Nafarroako hizkuntza propio horretan duten espresioa eta hitz jariora baloratzeko. Eginkizun hori euskara dakiten erakundeko langile laguntzaileen esku utziko du Ebaluazio Batzordeak.

## 7. oinarria. Eskaerak.

7.1. Interesdunek dagokion eskabidea toki hauetako batean aurkeztu beharko dute:

a) Nafarroako Arartekoaren Erregistroan. Emilio Arrieta kalea 12, behea, 31002, Iruña.

b) Posta elektronikoz, dokumentu guztiak info@defensornavarra.es helbidera bidalita, 7.3 puntuan ezartzen dena kontuan hartuz.

c) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako tokiren batean.

7.2. Deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hogeita egun naturaleko epean aurkeztu beharko da eskabidea.

7.3. Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Eskabidea, eranskineko ereduaren arabera, bete eta sinatua.

b) Eskatzailearen curriculum vitae-a, lortutako merezimendu guztiak zehatz-mehatz jasota.

c) Ikasketa espedientearen ziurtagiria, hauek jasotzen dituenak: maila bakoitzeko gai guztien kalifikazioa, espresuki aipatuta zein deialditan gairitu ziren, eta lortutako batez besteko nota.

d) Alegatzen dituen merezimenduak frogatzeko agiriak.

e) Hizkuntzak meritu gisa baloratzeko: ezagutza frogatzen duten ziurtagiri edo tituluak.

7.4. Epean aurkeztutako eskaerak aurreko zenbakian finkatutako dokumentuak ez baditu, interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean zuzendu dezala, eta adieraziko zaio, zuzendu ezean, eskaerari uko egiten diola ondorioztatuko dela eta espedientea artxibatuko dela, eta azken gorabehera hori jakinaraziko zaiola.

Deialdian ezarritako merezimenduei buruzko agiriak aurkezten ez badira, ezingo da zuzenketa egin.

7.5. Eskatzaileek beren helbide elektronikoa emango dute, behar diren jakinarazpenak jasotzeko.

7.6. Prestakuntza-beka jasotzeko eskaera aurkezteak berarekin dakar eskatzaileak deialdiaren oinarriak onartzea.

**8. oinarria.** Ebaluazio Batzordea.

8.1. Ebaluazio Batzordea arduratuko da betebeharrak egiaztatzeaz eta beka eskatzen dituztenek alegatutako merezimenduak ebaluatzeaz.

8.2. Ebaluazio Batzordeak aurkezten diren eskaerak aztertu eta baloratuko ditu, eta izangaien zerrenda bat egingo du, lortutako puntuazioaren arabera.

8.3. Ebaluazio Batzordea hauek osatuko dute:

- Instituzioko idazkari nagusiak.
- Nafarroako Arartekoaren aholkulari batek (idazkari-lanak egingo dituena).
- Instituzioko kudeaketa-teknikariak.

Aipatutako pertsonetako bat ez badago, Nafarroako Arartekoak instituzioko aholkulari bat izenda dezake.

**9. oinarria.** Hautaketaren ondorengo prozedura.

9.1. Ebaluazio Batzordeak bekarako hautatu duen pertsonak dokumentazio hau aurkeztu beharko du, hautaketa jakinarazi eta gehienezko bost egun naturaleko epean:

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren edo baliokidea den identifikazio agiraren fotokopia.
- b) Zuzenbideko graduaren tituluaren fotokopia.
- c) Nafarroako herriren bateko erroldatze ziurtagiri eguneratua, antzintasuna zehazten duena.
- d) Euskarazko B2 titulu publikoaren kopia bat edo maila baliokidearena.
- e) Jarduteko gaitasun osoa duela, eta bekaren xede den prestakuntza-jardueran aritzea galaraz diezaiokeen desgaitasun fisikorik edo gaixotasunik ez duela adierazten duen dokumentu bat. Eredu bat emango da baldintza hori egiaztatzeko.
- f) Adierazpen bat, esaten duena zerga guztien ordainketak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela, eta ez dela kobratzen ari administrazio edo entitate publiko edo pribatu batetik helburu bera duen beste edozein laguntza publiko bateraezinik. Eredu bat emango da baldintza hori egiaztatzeko.

9.2. Beka Nafarroako Arartekoaren ebazpen baten bidez emango da, eta ebazpen hori instituzioaren gune digitalean argitaratuko da: [www.defensomavarra.es](http://www.defensomavarra.es).

Hautaketa-prozesuan parte hartzen dutenei idatziz emango zaie emaitzaren berri, eta lortu duten guztizko puntuazioa adieraziko zaie; nolahi ere, espedienteko informazioa kontsultatzeko eskubidea izango dute.

9.3. Eskatutako dokumentazioa ez bada aurkezten, edota aurkezten dena ez bada eskatutakoa, interesdunak uko egin duela ulertuko da, eta zentzu horretan komunikatuko zaio.

9.4. Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta hiru hilabeteko epean berariazko ebazpenik jakinarazten ez bada, ukatu egin direla ulertuko da.

**10. oinarria.** Deialdia hutsik geratzen bada.

Hautatze prozesu honen arabera deialdia hutsik geratzen bada, Nafarroako Arartekoko instituzioak aurreko deialdira aurkeztu ziren pertsonen diezaieke, betiere deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen badituzte eta jasotako puntuazioa kontuan hartuta, eta, edonola ere, hautaketa egokia lortzeko beharrezko neurriak hartu ahal ditu.

**11. oinarria.** Tutoretza.

11.1. Beken onuradunaren jarduerak aholkulari batek gainbegiratuko ditu eta aholkulari horren tutoretzapean egongo da onuraduna.

11.2. Tutoreak orientazioa, laguntza, prestakuntza hobea eta gidaritza emango dizkio bekadunari erakundean dagoen bitartean. Prestakuntza bideratu eta gainbegiratzeaz arduratuko da, orientabideak, gomendioak, iradokizunak eta, hala badagokio, zuzenketa oinarrituak ezarri, bekadunak prestakuntza hobea izan dezan. Bekadunen betebeharrak orokorrak eta espezifikokoak betetzen direla gainbegiratuko du.

11.3 Tutoreak prestakuntza-plan orientagarri bat emango dio bekaren onuradunari, bertan nahitaezkoztat jotzen diren ebaluazioak alde batera utzi gabe.

**12. oinarria.** Onuradunaren betebeharrak.

Betebeharrak hauek ditu bekaren onuradunak:

- a) Bekaren xedeko prestakuntza-jarduera betezea.
- b) Betebeharrak eta baldintzak betetzen dituela frogatzea, bai eta, orobat, beka jasotzeko arrazoi izan diren jarduerak egin dituela eta helburuak bete direla ere.
- c) Emandako bekaren gainean egin ditzaketen egiaztapen-lan guztietan parte hartzea.

d) Xede berarekin eskatu edo jaso dituen bes-telako beka edo dirulaguntzen berri ematea Nafarroako Arartekoari.

e) Nafarroako Arartekoari komunikatzea emandako bekari espresuki uko egiten diola, jarduerak utzi baino hamar egun natural lehenago gutxienez.

f) Bekaren zuzeneko ondorio diren jarduera eta argitalpen guztietan bekadun gisa aritu dela adieraztea.

g) Bekaldiak irauten duen bitartean eta ondoren, ezagutzen duen isilpeko informazio tekniko edo administratiboaren gainean sekretua eta konfidentzialtasuna gordetzea.

h) Zein erakundetan jarduten duen, bertako barne edo funtzionamendu araubidea betetzea.

i) Nafarroako Ogasun Publikoarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituen betebeharrak egunean dituela egiaztatzea. Emango den ereduan, Nafarroako Arartekoari baimena ematea egongo da, onuradunak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten datuak kontsultatzeko, jarduerak hasten diren unean.

j) Nafarroako Arartekoaren datu pertsonalak babesteko legezko erregimena onartzea.

**13. oinarria.** Prestakuntza-jardueraren hasiera eta uko egitea.

13.1. Onuradunak adierazten den egunean hasi beharko du lanean instituzioan. Adierazitako egunean onuraduna ez bada jardunean hasten, Nafarroako Arartekoari horren berri eman gabe, edo onuradunak lanean ez hasteko arrazoiak adierazi eta instituzioak ez badu ikusten ezinbesteko arrazoiak direla edo behar bezala justifikatutako beste arrazoiaren bat dela, bekari behin betiko uko egiten diola ulertuko da.

13.2. Bekari berariaz uko eginez gero, Nafarroako Arartekoari horren berri eman beharko zaio. Beka erabiltzen hasi ondoren, bekari uko eginez gero, Nafarroako Arartekoari berariazko ukoaren berri eman beharko zaio, jarduera utzi baino hamar egun natural lehenago gutxienez.

13.3. Eskuratutako bekari edozein arrazoiengatik uko eginez gero, zilegi izango da zerrendako hurrengoari edo hurrengoei ematea, deusetan galarazi gabe onuradunak uko egin arte dituen betebeharrak eta 10. oinarrian ezarritakoa kontuan hartuz. Kasu honetan, ordezkatzeko duen pertsonak, gehienez urte bateko epean egingo du.

**14. oinarria.** Prestakuntza-jarduera egitea.

Bekaduna Nafarroako Arartekoaren egoitzan arituko da, astean 30 ordu eginda. Halaber, beka-

dunak prestakuntzarako behar diren joan-etorriak egingo ditu.

Bekadunak 27 egun baliodun izango ditu atsedeen hartzeko.

**15. oinarria.** Jabetza intelektualak.

Bekarako hautatu den pertsonak jabetza intelektualaren gainean dituen eskubideak, Nafarroako Arartekoaren beka egindako jardueraren ondorioz eskuratzen direnak, eskubide horiek erregulatzen dituzten Estatuko arauetan ezarritakoari jarraikiz arautuko dira. Horri dagokionez, instituzioak ez dio uko egiten agirien, azterlanen, ikerlanen, lanen, eskubideen, emaitza zientifikoen eta izan litezkeen asmakuntzen gainean legokiokeen jabetzari.

**16. oinarria.** Lan- edo administrazio-harremanik eza.

16.1. Beka erabiltzea eta bekaduna izatea ez da zerbitzuak ematea, eta egoera horrek ez dakar berarekin lan-harremanik, lan administratiborik edo lan estatutupekorik sortzea Nafarroako Arartekoaren instituzioarekin, ez eta antzeko eskubiderik lortzea ere. Instituzioak ez du konpromisorik hartuko beka bukatutakoan bekadunak bere plantillan sartzeko.

16.2. Prestakuntza bekadunei agintzen zaizkien lan edo jarduerak Nafarroako Arartekoaren langileek gainbegiratuak dituzte eta langile horiek izango dira lan horien erantzuleak. Bekadunek ezingo dituzte Nafarroako Arartekoaren langileen eginkizunak bete edo beraientzat hartu, ez eta hirugarrenen aurrean instituzio kide, ordezkari edo agente gisa agertu ere.

**17. oinarria.** Kalte-ordainak jasotzeko eskubidea.

Bekadunak, prestakuntza egiten ari deneko Nafarroako Arartekorekin duen harreman juridikoa ezertan aldatu gabe, eskubidea izango du zerbitzuagatik eta bidaiengatik dituen gastuengatik langileei dagozkien ordain berberak jasotzeko.

**18. oinarria.** Bekaren ordainketa itzultzea edo bertan behera uztea.

18.1. Nafarroako Arartekoak eskubidea izango du onuradunari eskatzeko jaso duen zenbateko osoa edo zati bat itzultzeko, edo zenbateko horiek bertan behera uzteko, kasu hauetan:

a) Beka eskatzeko eta lortzeko baldintzak faltsutu baditu edo beka ez ematea ondorioztatutako luketen baldintzak ezkutatu baditu.

b) Bekadunak bere gain hartutako betebeharrak eta eginkizunak ez betetzea, jarduerak egiten

ardurarik ez jartzea, errendimendu eta aprobe-txamendu eskasa izatea eta lanak kalitate gabe-koak izatea.

c) Prestakuntza-beka emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzea, aldez aurretik baimena lortu gabe. Horretaz gain, aldi berean jasotzea beka horrekin bateratu ezin den beste beka edo dirulaguntzaren bat edo bateragarria kontsidera-tzen ez den lan edo aktibitatearen bat eginez gero.

d) Instituzioak egindako bekaren inguruko egiaztatze-jardueretan parte ez hartzea.

18.2. Nafarroako Arartekoak erabakiko du, ebaz-pen baten bidez, beka itzuli behar den edo bertan behera geratuko den. Horretarako, aldez aurretik kontraesaneko espediente bat egingo da, txostenekin, frogekin eta onuradunaren alegazioe-kin.

18.3. Ebazpena interesdunari jakinaraziko zaio, tokia, modua eta diru-sartzea egiteko edo beka eteteko epea adierazita.

**19. oinarria.** Prestakuntzaren egiaztatzea.

Prestakuntza-beka bukatzen denean, Nafarro-ako Arartekoak egiaztigiri publiko bat emango du onuradunak egindako prestakuntzari buruz. Beka bere osotasunean egiten ez bada, instituzioak

egiaztigiri hori eman ala ez baloratuko du, per-sona onuradunak egindako aktibitatea ikusita.

**20. oinarria.** Aplikatu beharreko legeria.

Oinarri hauen interpretazioen eta aplikazioen ondorioz ager daitezkeen gorabehera guztiak Nafarroako Arartekoak ebatziko ditu, oinarrietan ezarritakoaren eta aplikatu behar den araudiaren arabera.

**21. oinarria.** Errekurtsoak.

Errekurtso hauek jar daitezke deialdiko oina-rien eta oinarriak betetzeko ekintzen aurka:

a) Aukerako berraztertze errekurtsoa jar-tzeko aukera izango dute Nafarroako Arartekoa-ren aurrean, ebazpena jakinarazi eta, hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera (Administrazio Publiko-en Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, ebazpena jakinarazten den ondorengo egunetik hasita eta bi hilabeteko epean, oinarri hartuta uztailaren 13ko 29/1998 Legea (administrazioarekiko auzien juris-dikzioa arautzen duena).

**ZUZENBIDEAN GRADUATUTAKO PERTSONENTZAT ETA EUSKARAREN EZAGUTZAREN  
BALDINTZAREKIN NAFARROAKO ARARTEKOAN ARITZEKO PRESTAKUNTZA BEKA BAT  
ESKATZEKO ESKAERA ORRIA**

\_\_\_\_\_ jaun/andreak, \_\_\_\_\_ NAN zenbakia duenak,

\_\_\_\_\_ helbidean bizi denak (zehaztu kalea, plaza, posta-kodea eta herria), eta prozedura honi dagozkion jakinarazpenetarako \_\_\_\_\_ telefonoa eta \_\_\_\_\_ posta elektronikoa dituenak,

**ESKATZEN DU:**

Duela gutxi deitutako Nafarroako Arartekoaren erakundean aritzeko Zuzenbidean graduatutako pertsonentzako eta euskaren ezagutza baldintzarekin prestakuntza-beka bat lortzeko prozeduran parte hartzea.

**ADIERAZTEN DU:**

Deialdiko 5. oinarrian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela (adin nagusikoa izatea, nazionalitatea, Zuzenbideko gradu-titulua, Nafarroan bizitzea, zereginak betetzeko gaitasuna, euskarazko B2 maila edo baliokidea eta zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea).

HORRETARAKO, deialdiko 7.3 oinarria betez, hark eskatutako dokumentu hauek aurkezten ditu: a) eskaera-orria, beteta eta sinatuta, b) curriculum vitae-a eta lortutako merezimenduen zerrenda, c) espediente akademikoaren egiaztagiria, d) aipatutako merezimenduak egiaztatze dokumentuak eta e) beharrezkoa izanez gero, hizkuntzen egiaztapen-tituluak.

JAKINARAZTEN DU: Onartzen dituela deialdiko oinarriak eta prestakuntza-beka honen kudeaketari lotuta bere datu pertsonalak tratatzeko baimena ematen duela.

\_\_\_\_\_ (e)an, \_\_\_\_\_ ko \_\_\_\_\_ (a)ren \_\_\_\_\_ (e)(a)n.

**Eskatzailearen sinadura.**

(Deialdia bizkortzeko, arren, dokumentuak posta elektronikoko bidez [info@defensornavarra.es](mailto:info@defensornavarra.es) edo presentzialki Emilio Arrieta 12, behea, Iruñea helbidean aurkezteko eskatzen da)

**NAFARROAKO ARARTEKO JAUNA**

**DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA**

Datu pertsonalen babesarekin lotutako alderdi guztietan, Nafarroako Arartekoak 2016ko apirilaren 27ko Europako Araudiarekin, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearekin eta bere jarduerari aplikagarri zaizkion gainerako legeekin bat etorri jarduten du.

**1. Arduraduna:** Nafarroako Arartekoa. **2. Xedea:** kexak, kontsultak edo erakunde honen eskumenen esparruan sartzen den beste edozein jardura artatzea. **3. Legitimazioa:** interes publikorako eginkizuna betetzea. 4/2000 Foru Legea, uztailaren 3koa, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzkoa. **4. Eskubideak:** atzipena, zuzenketa, ezabapena, tratamenduaren mugaketa, aurkaratzea, eramangarritasuna eta onespenean atzera egitea, legez ezarritako baldintzetan. **5. Informazio osagarria:** hemen kontsulta daiteke <https://www.defensornavarra.es/eu/datuen-babesa>.

Eskubideak erabiltzeari dagokionez, interesdunek hona jo dezakete bere nortasuna egiaztatzen duen agiria erantsiz: Nafarroako Arartekoa, Emilio Arrieta kalea 12, etxabea, Iruñea (posta-kodea: 31002), telefono zk.: 948 203571, helbide elektronikoa: [info@defensornavarra.es](mailto:info@defensornavarra.es)